ARGIA

EHZ FESTIBALA

# Dantzatu nahi dut bizitza

42-47.orriak

#2.740 | 2021/07/11 | 3,90 €

9 778402 139093 02740

## Euskararik ez da streaming plataformetan

22 | PANTAILAK EUSKARAZ

## Uraren pribatizazioaren eskandalua Zumarragan

31 | GIZA ESKUBIDEAK

## "Argitaletxeek ikusi dute jende gaztea behar dela literaturan"

52 | UXUE RAZQUIN, EREIN

ARGIA

# LAGUNDU BANAKETA SAREA INDARTZEN

Lan baldintza duinak bermatzen dituzten banaketa kooperatibak sortzen ari dira Euskal Herrian. ARGIA hasieratik sustatzaile da eta gainera, honi esker, aldizkariak harpidedunei bizikletan banatzen hasi gara. Helburua, geroz eta herri gehiagotara zabaltzea.

## ZER EGIN DEZAKET?

Aukerarik ikusten baduzu herrian halako banaketa sistema bat sustatzeko, jarri gurekin harremanetan eta azter dezagun egoera:

**KOMUNITATEA@ARGIA.EUS**

ARGIAko kide egin halako proiektuak bultzatzeko:

**ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA**
**943 37 15 45**

ORAINGOZ: GASTEIZ · ARRASATE · IRUN · HONDARRIBIA · HENDAIA

ARGIA

2.740 zenbakia I Uztailak 11, 2021

# Panorama

**04** I ASTEKO ARGAZKIA
**06** I AKTUALITATEA
**08** I EKONOMIAREN TALAIAN
**09** I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
**09** I EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
**DANI BLANCO**

# Iritziak

**17** I ENDIKA ALABORT
**18** I KATIXA DOLHARE
**19** I BEÑAT IRASUEGI
**19** I ITXARO BORDA
**20** I MIKEL BASABE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
**CLIPART COURTESY FCIT**

# Finkoak

**37** I DENBORAREN MAKINA
**38** I ARGIA KOMUNITATEA
**40** I BIZI BARATZEA
**48** I KULTUR-KRITIKAK
**51** I DENBORA-PASAK
**52** I ARGI-KONTRA: UXUE RAZQUIN
**54** I BERANDUEGI

**22** I **PLATAFORMAK EUSKARAZ**
Nola lortu ingelesa nagusi den ikusentzunezko itsasoan euskarazko edukiak ikusgarri egotea eta ahalik gehien izatea? Gorka Peñagarikanok galdetu die EHUko NORK ikerketa taldeko kideei eta Pantailak Euskaraz ekimeneko bozeramaileari.

# Elkarrizketak eta erreportajeak

**10** I NET HURBIL
## N|uu hizkuntza zahar eta paregabea ez du harekin eraman nahi Katrina Esauk
Jenofa Berhokoirigoin

**12** I PERTSONAIA I SUSANA MINGUELL
## “Haurtzaroan jasandako sexu abusuak auzi politikoa dira”
Miren Artetxe

**28** I LABORANTZA
## Industrialak satisfos eta laborari ttipiak kezkaturik utzi ditu adosturiko NPBak
Jenofa Berhokoirigoin

**31** I URAREN PRIBATIZAZIOA
## Uraren pribatizazioaren bataila aurten jokatzen da, Zumarragan eta Urretxun
Estitxu Eizagirre

**34** I HISTORIA | AUZO ELKARTEAK TRANTSIZIOAN
## Borroka demokratiko baten memoria, egungo hiriak ulertzeko
Ipar-Hegoa Fundazioa

**42** I KULTURA
## "EHZ, munduko festibalik onena”
Xalba Ramirez

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

**Jabetza**
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
**Lehendakaria**
Onintza Irureta
**Erredakzioa**
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iraitz Madariaga, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
**Diseinua**
Maitane Gartziandia
**Argazkilaria**
Dani Blanco
**Produkzioa eta inprimaketa**
Antza S.A.L.
**Administrazioa**
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
**Salmenta**
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto
**Azoka**
Mikel Olabide
**Idazkaritza**
Aloña Soraluze, Bego Zuza
**Web garapena**
Asier Iturralde
**Informatika**
Iametza interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**
SS 837-2012
**ISSN**
0213-909X
**Batzorde parekidea**
72562 E

**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**
**Posta elektronikoak**
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus
**Telefonoa**
943371545
**Gipuzkoa**
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
**Nafarroa**
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina, 31001 Iruñea

*Ametzagaiña* taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:
antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

## Doan eta libre
ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

# Distiraren atzean

**Garbitzea ez da inoiz esker oneko lana izan, ez etxean ezta titanioaren edo turisten argipean ere. Horren frogarako ia hilabetez, irribarrea galdu gabe, greban ari diren Bilboko Guggenheim Museoko 19 garbitzaileak. Bizkaiko "turismoaren eta izen onaren" ikurra prekarietateak eta soldata arrakalak zikinduta dago. Horiek ere Urdaibaira esportatzeko modukoak izango al dira?**

MONIKA DEL VALLE / FOKU AXIER LOPEZ

ASMAMENAREN ILDOA
LA LÍNEA DEL INGENIO
THE LINE OF WIT
BILBAO
ETA PINTURA
Y LA PINTURA
AND PAINTING
DETRAS DEL TITANIO Y DE LAS OBRAS DE ARTE, SE ESCONDE LA PRECARIEDAD LABORAL
GARBIKUNTZA BORROKAN
La brecha salarial es una realidad
GUGGENHEIM ENTZUN, GARBIKUNTZA PIM PAM PUM
EZ, EZ, EZ, PREKARIETATERIK EZ!!!!
LIMPIEZA DEL GUGGENHEIM EN LUCHA
JO-TA-KE IRABAZI ARTE
EZ,EZ,EZ, ARRAKALARIK EZ !!!
con todas nuestras fuerzas

## MOTZEAN

**Madrildik beherako kartzeletan ez da euskal presorik gelditzen. Preso euskaldunen %60 Euskal Herritik 150 eta 400 kilometrora bitartean dauden kartzeletan daude. %33 baino ez daude kondena Euskal Herrian betetzen.**

**Gaindegia Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak bertan behera utzi du bere jarduna arazo ekonomikoengatik.**

**Buruzagi independentista katalanei indultuak eman izanagatik azalpenak eman ditu Pedro Sánchezek Espainiako Diputatuen Kongresuan. PSOEk ez duela erreferendumik onartuko adierazi du.**

**Elizgizonek umeei egindako sexu abusuak ezkutatu dituzte Eliza Katolikoak eta Espainiako Estatuak, EHUk eta beste hiru unibertsitatek egindako ikerketaren arabera.**

**Arabako Mendiak Aske plataformak Azazetako zentral eolikoaren aurkako alegazioak aurkeztu ditu, eta 23.833 sinadura bildu ditu Arkamu, Azazeta, Iturrieta eta Labrazako lau proiektuen aurka.**



# 49,6 gradutara iritsi dira Kanadan

XABIER LETONA BITERI

Kanadan 49,6 gradutara iritsi dira joan den astean, han inoiz jaso gabeko tenperatura, eta hildako ugari eragin ditu bero boladak –astekari hau ixteko unean, uztailaren 5ean, ia 500 hildako dira Kanada hego-mendebaldean–. Hain juxtu, larriak eta kezkagarriak dira klima aldaketari lotuta AFP agentzia frantsesak egin duen azken txostenaren ondorioak.

"Lurreko bizitza berrituko da, gizateria ez". Hori da AFP agentzia frantsesak IPCC (Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea) prestatzen ari den azken txostenaz egin duen filtrazioaren titulu nagusia. Erakunde hau klima aldaketa aztertzen duen munduko garrantzitsuena da eta amaitzen ari da bere zazpigarren txostena. Berez, filtrazio hau politikarientzat prestatzen den txostenaren aurrerapena da eta zehatz-mehatz esaten du Lurreko bizitza berritu daitekeela aldaketa klimatiko handi baten ondorioz, bizitza garatuko dela espezie berrietara eta sortuko direla ekosistema berriak. Argia da ordea: gizateriak ez du aukera hori izango.

Bereziki latza da azken txosten hau. Azken urteetako ondorioak berresten ditu, baina adieraziz klima aldaketaren aurrean konponketa aukera gero eta murritzagoa dela, edo jadanik akaso ez dela aukerarik. Marta Tafalla Filosofian doktoreak ez du ulertzen nola gizartea ez dagoen erabat kezkatuta datorkigun klima aldaketarekin:

"Politikari gehien-gehienak ez dirudi kezkatuta daudenik, ezta intelektual gehienak ere, mundu akademikoko, kulturako eta kazetaritzako jendea ere ez oro har, edo gutxienez ez dute transmititzen. Uste dut jendea ez dagoela kezkatuta, gure gizartea biosferatik erabat deskonektatuta dagoelako, eta oso gutxi ulertzen duelako nola funtzionatzen duten ekosistemek, ez baitu ulertzen zer esan nahi duen 2 edo 3 graduko igoerak. Ingurumen-hezkuntza eta etika ekologikoa hezkuntza-sistemaren eta prentsaeren eta kulturaren ardatz egituratzaile bihurtu beharko genituzke lehenbailehen. Ez badugu lortzen gizarte osoak ulertzea zein larria den kaos klimatikoa, ez da modurik egongo hura arintzeko edota horretara egokitzeko neurriak martxan jartzeko; ez dakit oraindik posible den, gero eta zalantza gehiago ditut, baina sikiera saiatu beharko genuke".

Albiste hau osatzeko Juan Borderak Ctxt agerkarian egindako artikulu interesgarria erabili da.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Oiasso FE

ARITZ GALARRAGA

Futbolaz esango nuke ez dudala sekula zutabeotan hitz egin –izango da oraindik noizbait futbolari buruzko zutabe bat emango didaten esperantza daukadalako–. Eta badakit zutabe hau futbol hitzarekin hasi izanak nire irakurle gutxietako gehienak galtzea ekarriko didala, hain imajinatzen zaituztet kultureta. Baina, geratzen zareten irakurle gutxi-gutxiok, otoi, utzidazue gaur futbolaz hitz egiten. Futbolaz edo.

Notizia baita Emerytarrek Irungo Real Union futbol taldea hartu dutela, tartean Unai entrenatzaile entzutetsuak, noski, baina baita Igor anaia txikiak ere. Izan ere, Igor Emery izango da hemendik aurrera Real Union taldearen lehendakaria. Hain zuzen, eta besteak beste, elkarrekin jokatu genuen futbol taldearena. Elkarrekin jokatu baikenuen biok denbora batez bertan. Eta begira non bukatu duen batak, eta non ni naizen besteak. Kontua da gustatu zaidala lehendakari berriak ibili duen diskurtsoa: "Real Union izan zenak ematen dio zentzua oraingo Real Unioni, handitasuna berreskuratu nahi dugu". Eta ez dakit handitasunaz ari denean XX. mende hasieran Espainiako lau kopa irabazi zituen taldearenaz ari den, edo berak eta nik jokatutako harenaz. Familia izaera eman nahi diote gainera taldeari, Emerytarren familiak hasieretatik parte hartu baitu bere ibilbidean. Espero dut ni ere sartzea familia horretan. Haien etxean Super Mario Brosera jolasten pasa nituen ordu guztiek konbalidatuko dute hainbeste.

Baina horiek baino puskaz gehiago hunkitu nau taldeari eman nahi dioten dimentsioak. Irun, noski, Hondarribia, Hendaia, baina Bera eta Lesaka ere bai, are: "Baionara iristea dugu buruan". Real Union izango da gaur egunean gehien ordezkatzen nauen proiektu politikoa. Eta ez ote den goiztxo, lehen ehun egunak ere ez dituzte pasa Emerytarrek, baina izenarena errebisatu beharko litzateke noizbait, Real monarkiko hori, eta Union bera. Badut gainera gure arbaso erromatarrak ohoratzeko proposamena: Oiasso Futbol Elkartea. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

## "ARBONAKO OKUPAZIORA ETORRI BEHAR DU JENDEAK, SOSTENGUA ADIERAZTERA"

**DOMINIQUE AMESTOY, ELB-KO LABORARI ETA LURZAINDIAKO KIDEA**

Espekulazioa dela eta, Arbonako 15 hektarea lur eta horiei loturiko etxea salgai dira 3,2 milioi eurotan. Okupazioa hasi zuten ELB eta Lurzaindiako kideek ekainaren 23an. "Okupazioarekin segitzea erabaki dugu, arrapostuen beha egotea". Aldarrikapenak bi dira: "Bata, 12 hektarea laborantzarako salbatzea eta erostunari uztea etxea eta hiru hektarea. Beste aldarrikapena euskal hirigune elkargoari begira dugu, laborantza lurren antolaketari buruz lan bat abiatzea nahi dugu. Ez da deus egiten, eta aspertzen hasiak ginen".

**ARGIA.EUS (2021/07/01)**

EKONOMIAREN TALAIAN

# Behin-behineko prekarioak

JUAN MARI ARREGI

Behin-behinekotasunak eta ordezkapenek lantokietan sortzen duten prekarietatea lan arloko legesistemaren gaitz handia izan da beti, eta izaten jarraitzen du, bai enpresa publikoetan bai pribatuetan. Milaka langilek jasaten du egoera hori bere larrutan. Sektore publikoko hamar enplegutik lau aldi baterakoak dira, batez ere hezkuntzan eta osasunean. Bada garaia legediaren eta, batez ere, praktikaren bidez prekarietate hori behingoz alboratzeko lantokietan.

Egunotan bi erabaki garrantzitsu hartu dira norabide horretan. Bata Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan: sindikatuek eta patronalak erabaki dute plataforma digitalentzat lan egiten duten banatzaileak –raider deiturikoak– EAEko Ostalaritzaren Esparru Akordioan sartzea. Orain, akordio hori lurralde bakoitzeko hitzarmen kolektiboetara eraman behar da. Ederra litzateke Nafarroan gauza bera egin ahal izatea.

Bestea Espainiako Estatuan: Europako epai batek egurra eman dio Espainiako justiziari, eta horren arabera, hiru urte baino gehiagoz ordezkapena egiten ari diren administrazio publikoko langileak mugagabe ez-finko bihurtuko dira. Auziaren muinari heltzen ez dion arren, epaiak sektore publikoko milaka langileri eragingo dio, 150.000 inguru Hego Euskal Herrian.

Orain, erabaki horiek errespetatu eta prozesuak azkartu behar dira, lehenbailehen ezarri daitezen. Erantzukizunaren zati handiena Espainiako Estatuko eta EAEko administrazio publikoen bizkar gainean dago noski, haiek izan behar bailukete eredu beren enpresetan enplegu duin eta egonkorra mantentzeko, prekarietatea eta behin-behinekotasuna elikatu beharrean. Gauza bat ezin dugu ahaztu: akordio horiek langileen borroka luze eta gogorrari esker lortu dira. ●

ANALISIA

# Ez manipulatzaileak, ezta koitaduak ere

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Duela hilabete, hotzikara eragiten duen berria heldu zitzaigun Kanariar Uharteetatik: urtebete eta zazpi urteko Anna eta Olivia alabak hil zituen Tomás Gimenok. Apirilean haurrak bahitu zituenetik beren berri jakin gabe egon ostean, ekainaren 10ean itsasoko uretan ahizpa nagusiaren gorpua aurkitzeak eszenatokirik beltzenera zeraman kasua. Hipotesi nagusia da aitak txikiena ere hil izana.

Hilketok harrabotsa sortu zuten jendartean, tamainako doilorkeriaren aurrean gaitzespen olatua eraginez. Itsaso harro bilakatutako iritzi publikoan, baina, korronteek irentsi egin zuten indarkeria matxista pairatzen duten amen eta haurren errealitatearen gaineko perspektiba zabaltzeko –eta berau problematizatzen eta salatzen jarraitzeko– parada luzatzen zuen albistea: Oliviaren hilotza aurkitu eta biharamunean, Juana Rivas andaluziarra bere kabuz aurkeztu zen espetxean; 3 eta 11 urteko bere semeak tratu txarrak eman dizkien aita eta bikote-ohiarengandik babestu asmoz hasitako periploak eraman zuen bertaraino.

Horratx problematika beraren txanponaren bi aldeak: aitak hildako haurrak eta seme-alabak arrisku horretatik libratzeko borrokan diharduten emakumeak. Behin harremana moztutakoan, emakumeari min egiten jarraitzeko azken heldulekua haurrak baitira tratu txarrak ematen dituen gizonaren begietara. Beatriz Zinnermanek harremana moztu zuenean sortu zitzaion Gimenori berau kaltetzeko nahia, alabak hiltzera eramango zuena; Francisco Acurik bereganako zuen indarkeriazko jarreragatik jarri zuen distantzia gizonaren eta bera zein bere semeen artean Rivasek, eta orduan ekin zion beste aldeak epaitegietan semeen zaintza exijitzeari; eta hor dugu Irune Costumero bizkaitarraren kasua ere, zeinak hiru urte daramatzan 8 urte dituen alaba tratu txarrak ematen dizkion aitarengandik babesteko borrokan, existitzen ez den Gurasoen Alienazio Sindromea leporatuta Bizkaiko Foru Aldundiak haurraren tutoretza kendu baitzion –tratu txarrengatik salatutako gizonari emateko–.

Feminicidio.net-ek bildutako informazioaren arabera, 2013 eta 2018ko martxoa artean, Espainiako Estatuan jazotako feminizidioen biktimen artetik, berrogei adin txikikoak ziren eta horietako hamar bisita erregimenaren edota zaintza partekatuaren bidez aitaren eskuetara igarotzean hil zituzten. Ama den hainbatek badu beldurrez, arduratuta eta asaldaturik egoteko motiborik, aurreiritzi matxistetan oinarrituz –besteak beste, emakumeak manipulatzaileak garela eta gizonari dena kendu nahi diogula– justizia patriarkalak seme-alabak besoetatik erauzten dizkienean berauen osotasunarentzat arrisku diren gizonen eskuetan uzteko. Tenerifeko hilketen gisako kasuak irmoki gaitzesten ditugun era berean, Costumeroren eta Rivasen egoeran dauden hamaika emakumeei babesa helarazi eta horien borrokara lerratzea legokiguke. Indarkeria bikarioaren aurrean haurren amak manipulatzaile edo koitadu izatera kondenatzen dituen logikarekin hausteak bai baitauka bere urgentzia. ●

# Pixoihal berrerabilgarrien alokairu eta garbiketa zerbitzua

ZERO ZABOR

Lehendik ezagunak baldin badira xatar edo pardel berrerabilgarriak, behin eta berriro garbitzeko eginak izanik pixoihal sintetiko oso kutsagarrien alternatiba direnak, orain horien erabilera errazteko sistema jarri du martxan Baionako enpresa txiki batek: pixoihal garbigarrien alogera eta, Baiona-Angelu-Miarritze eremuan, garbiketa zerbitzua.

### 40 FAMILIA

Baionako Les Petits Popotins elkarteak sustaturik, jada 40 familiak erabiltzen ditu xatar garbigarriok errentan. Bakoitzak hilabetean 20 euro pagatuz eskuratzen ditu etxean behin eta berriro erabili eta garbitzeko moduko pixoihalak eta haurra handituz doan heinean handiagoak eskuratzen ditu. Horrez gain, erabilitako pardelak astean bitan bildu, garbitu eta itzultzen ditu elkarteak, hilean 60 eurotan.

### EKOLOGIKOAGO, MERKEAGO

Haur bakoitzak 5.000 pixoihal erabiltzen ditu, denetara tona bat hondakin, errausketara doazenak. Ekonomikoki, gainera, alogerazko sistema honekin gastua erdira jaisten da.



ARGIA

## IÑAKI LARRAÑAGA HIL DA

**Lazkao.** Iñaki Larrañaga soziologoa eta soziolinguista zen, euskal soziolinguistikaren ikerketan aitzindaria. Alor sozioekonomikoa ikertzen zuen Siadeco kooperatibaren sortzaileetakoa izan zen. Kooperatibak euskararen normalizazioarekin lotutako ikerketa ere egin zuen. Lazkaotarra 88 urterekin hil da uztailaren 3an. "Ikerketa soziolinguistikoan, plangintza soziolinguistikoan, herrietako plangintzan... Arlo horien guztien aitzindariak Iñaki Larrañaga eta Siadeco izan ziren", adierazi du Kike Amonarriz soziolinguistak.

## OGASUNA

# 850 milioi

euroko zorra dute Ogasunarekin EAEko 242 zergadun handik; asko higiezinen eta eraikuntza sektoreko enpresak dira, argitaratutako zerrendan ageri denez. Nafarroako Ogasunean berriz, 120.000 eurotik gora zor dutenen zerrendaren arabera **319,9 milioi** euro zor dute 673 enpresa eta norbanakok.

**EUSKARAFOBIA.** Hiru gizonek Jean-Louis Iratzokiri peronea hautsi zioten, Donibane Lohizuneko "ez jaietan" euskaraz aritzeagatik. "Frantzian gaude. Zein dialektotan ari zara?", galdetu zioten, eta Iratzokik euskaraz erantzun zien. Jipoitu ondoren, erasotzaileek alde egin zuten.

**TXILE.** Elisa Loncón maputxeak zuzenduko du Txileko konstituzio berria onartzeko taldea. Augusto Pinochet diktadorearen 1980ko konstituzioa aldatuko du 155 kideko Konbentzioak (herri indigenek 17 eserleku dituzte). Urtebeteko epea dute aldaketarako.

**ADIERAZPEN ASKATASUNA.** 2.300 euroko isuna jarri dio Zornotzako Udalak Martz grafitigileari, herrian grafitiak egiteagatik. Martzek adierazpen askatasunaren eraso gisa ikusten du gertatutakoa eta esan du ez duela isuna ordainduko. Hainbat artistaren babesa jaso du.

# N|UU HIZKUNTZA ZAHAR ETA PAREGABEA
# EZ DU HAREKIN ERAMAN NAHI KATRINA ESAUK

Hegoafrikan sustraituriko San komunitatekoa da Katrina Esau; okupazioak, kolonizazioak, Apartheid zein neokolonizazioa pairaturik, bidean anitz utzi behar izan duen komunitatekoa. Tartean, N|uu haien ama-hizkuntza. 88 urterekin N|uu mintzo duen azken hiztuna da eta baliabiderik gabe, ahal bezala dabil transmisio lanetan, hiltzen den egunean munduko hizkuntza zaharrenetarikoa harekin ez eramateko gisan. Esauren laguntzarekin, orain arte ahoz-aho transmitituriko hizkuntza idatzian jarri dute linguista batzuek eta *!Qhoi n|a Tjhoi* umeentzako lehen ipuin-liburua ere argitaratu berri du Esauk.

**JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Ohoreak eta laudamenak ez ditu eskas Katrina Esau, Hegoafrikako 88 urteko damak: "erregina" izendatu zuten bere komunitatekoek 2015ean; 2014an Jacob Zuma ordungo presidenteak Zilarrezko Baobabaren Ordena nazionala eskaini zion; 2020an "bizirik dagoen altxorra" izendapena bideratu zion Cyril Ramaphosa presidenteak ere. Bistan denez, hauek dira oihartzun handiko aipamenak, anitzez gehiago dira egunerokoan ingurukoek bideratzen dizkioten eskerrak.

Handia delako Esau erregina, handia bere erronka, handia bere determinazioa eta handia berak eramaten duen lana: ahal bezala, munduko hizkuntzen artean zaharrenetarikoa dugun N|uu hizkuntza ondorengoei transmititzen dabil, dakielako azken hatsa emanen duenean azken hitza ere emanen duela. Hain zuzen, N|uu mintzo duen azken hiztuna delako Katrina Esau.

Harekin batera N|uu-a desagertzerik ez du nahi. Ekainaren 7an zendu zitzaion anaia, Oom Simon, mintzaiderik gabe utziz arreba. Dolutan, agiria plazaratu zuen Hegoafrikako Gobernuak ere: "Oom Simon Sauls Katrina Esauren anaia gazteena zen, N|uu hizkuntza komunzki mintzo zuten azken bi hiztunetariko bat. Ondo ezagutzen zituen animalien eta intsektuen izenak N|uu hizkuntzaz. Harekin batera ezagutza baliotsu anitz dugu galtzen. Eginkizun handia izan du hizkuntza onartzeko, babesteko, bizirik iraunarazteko eta sustatzeko eraman borrokan. Harek egindako guztiari esker konturatu gara afrikar gisa oinordekotasun aberatsa dugula esku artean eta badugula harro izatekoa".

Khoisan populu indigenaren parte den San komunitatekoa da Katrina Esau, azken aurkikuntza arkeologikoei segi, Afrikako populu zaharrena litzatekeena –azken 44.000 urteetan Afrikaren hegoaldean kokatutakoak liratezke–. Belaunaldiz belaunaldi ehiztari-biltzaileak izandakoak, gaur egun sedentario izatera behartuak dira kopuruz 120.000 eta 140.000 artean diren San autoktonoak. Historian zehar, izan tokiko populu sedentario ezberdinen okupazioengatik (Khoikhoi eta Bantuak, demagun), XVII. mendetik aitzina pairatu herberehetarren zein britainiarren okupazioengatik, Apartheid sistemagatik zein gaur egun dagoen multinazionalen neokolonialismoarengatik, aspaldian dabiltza haiena libreki ezin bizituz eta apurka-apurka guztia galduz.

Ukaldi bortitza izan zuten 1931n, Kalahari Gemsbok National Park parke naturalaren sorrerarekin –38.000 km$^2$-ko eremu zabala–. Autoritateen begietatik, naturaren iraupenak gizakien presentzia-ezarekin errimatzen zuenez, haien lurretatik haizatu zituzten 1956an. "Bata bestearengandik hain urrun aurkiturik, azken 30 urte hauetan ezin izan dute haien modura aitzinatu, komunitate gisa definitzea ere ezinezkoa bilakatu zaiela" irakurri daiteke *Les ǂKhomani San de l'Afrique du Sud* ("Hego Afrikako ǂKhomani Sanak") dokumentuan.

Tartean, bistan da, N|uu-aren erabilpena zaie debekatu. "Ez dut hizkuntza hau ikasi; amaren bularretik edoski nuen eta buru gibelean ehortzi behar izan nuen", kontatzen du Esauk *Lost tongue* dokumentalean, berea isildu eta nederlanderatik eratorritako kolonoen Afrikaans mintzatu behar izan zuelako. Kolonoen zerbitzuko ari zen lanean, afrikaners familia batean, bere gurasoen gisara bera ere esklabu. Hauentzat ez zen "erregin" ala "altxor"... "Geelmeid" izendatzen zuten –"zerbitzari horia", une oro azpiko klase sozialari eta arraza zapalduari mugatzeko gisan–.

## HIZKUNTZA ZAHARRA, PAREGABEA

Apartheid sistema 1991n bukaturik, haien eskubideak aldarrikatzeari lotu ziren hainbat San, nonbait Nelson Mandelak bidea errazturik –jatorriz amaren aldetik, San ere zena–. Katrina Esau 2000. hamarkadan hasi zen, bere baitatik, etxeko korralean aulkiak jarri eta inguruko umeei N|uu hizkuntza irakasten. Lagundu nahian eta solaskiderik gabeko hizkuntza honen transmisioa segurtatzeko bidean, idatzizkora ere pasa zuten linguista batzuek orain arte ahoz-aho pasarazitakoa. Urrats bat gehiago: *!Qhoi n|a Tjhoi* ("Dortoka eta ostruka") liburua ere plazaratu du Katrina Esauk ekaina hastapen honetan, N|uu hizkuntzan publikaturiko lehen liburua. Umeentzako ipuina da *!Qhoi n|a Tjhoi*.

Hamabost egunero hizkuntza bat desagertzen da munduan, aldi oro,

**KATRINA ESAU**
88 urterekin, n|uu hizkuntza mintzo duen azkena izanki, hiztun berriak sortu nahian dabil, buru-belarri eta ahal bezala transmisioa bideratuz.

hiltzerakoan azken hiztunak mundu bat eramanez harekin. Hori badaki Katrina Esauk eta horregatik dabil gorputz nekatu horretatik ahal bezain bat hitz transmititzen. N|uu hizkuntza desagertuz munduko hizkuntza zaharrenetarikoa, baita aberatsenetakoa ere, litzatekeelako desagertuko. 114 fonema edo ahozko soinu ditu –euskararena ez atzemanik, frantsesean ala ingelesean demagun 40 inguru dira–. Hizkuntza *klikduna* ere da, mihiarekin ahosabaia joz edota ezpainen bidez sortzen diren 45 *klik* soinu ezberdin ditu! Gaurko egunean, gutxi dira gisa horretako hizkuntzak, 30 bat Afrika hegoaldean eta ekialdean baita Australiako aborigenen artean hitz egin izan zuten Damin hizkuntza ere.

Ikerketa genetiko batean oinarriturik, *The New York Times*-ek publikaturiko *In the footsteps of the first human language* ("Gizakion lehen hizkuntzaren arrastoetan") artikuluan ondokoa irakurri daiteke: "Gaur egun hitz egiten diren hizkuntzetako batzuk lehen gizakien ama-hizkuntza zaharraren oihartzunak ote dira? Hizkuntzalari gehienek diote hizkuntzak azkarregi bestelakotzen direla hori posible izateko. Baina, hizkuntza-talde jakin batean antzinatasun handia nabarmendu duen azterketa genetiko berri baten arabera, litekeena da hauen ezaugarri bereizgarrietako batzuk jatorrizko ama-hizkuntzarenak izatea. Hegoaldeko Afrikako hizkuntza klikdunez ari gara (Khoisan taldekoenak, hots, Khoin, Hottentots eta San populuenak)". Katrina Esauen joatearekin hari luze honen bukaera ere dugu beraz parez-pare. Hiztun hauen DNA azterturik, ondorioztatu daiteke askazi genetiko zahar-zahar baten parte direla: "Giza talde guztiek adin bera dute, antzinako populazio beretik jaisten baitira. Baina giza talde hauek gizateriaren zuhaitz genealogikoaren gainean jartzeko gai dira orain genetistak. Adar laburrenen muturrean dauden taldeak, duela gutxi populazio zaharrenetatik bereizi dira eta adar luzeenen muturretan daudenak baino gazteagoak dira, genealogikoki. Mitokondrioko DNAren arabera, Ju–hoansi leinua [Khoisanena] hain da zaharra, ezen ia giza zuhaitzaren sustraira itzultzen baita", irakurri daiteke artikuluan.

2018az geroztik dabiltza Khoisan herriaren ordezkari batzuk gobernuaren palazioaren aitzinean akanpatzen: "Irakatsia den historiari segi, Khoi eta San populuak desagertu ziren. Hemen gaude erraiteko bizirik gaudela eta gure identitatearen aitortza eskatzen dugula". Aldarrikapenen artean dute N|uu hizkuntzarentzat ofizialtasuna. Guztira hamaika hizkuntza ofizial baldin baditu ere Hegoafrikak, aitortza minimorik ez dio oraindik bideratu betidanik hor izan den hizkuntza horri. ●

## Susana Minguell

HAUSTURATIK INDARRA

# HAURTZAROAN JASANDAKO SEXU ABUSUAK AUZI POLITIKOA DIRA

Filosofia ikasten hasi bezain laster interesatu zitzaion kontrolaren eta boterearen gaia. Nola gizarteak, zuzenean zein zeharka, norbanakoon bizitzak nahieran mugatzen dituen. Noraino garen ala ez garen geure erabakien jabe eta nola berreskuratu kendu diguten boterea. Gerora, haurtzaroan jasandako sexu abusuek utzitako zauriak osatzeko prozesuan, bere gorputzaren iragazkitik pasa zituen gogoetak. Ikasitakoa partekatzeko atera zuen *Palabras dislocadas* liburua (Editorial Descontrol, 2019). errezitaldien eta ikastaroen bidez.

MIREN ARTETXE SARASOLA DANI BLANCO

**Filosofia ikasi zenuen, diozunez, zure familiaren ikararako.**

Bai. Hura izualdia. Ez zuen lanerako balio! Hain justu niri horregatik iruditzen zitzaidan interesgarria. Pentsatzen nuen produkziora bideratu gabeko ikasketetan ezagutza bere soilean emango zigutela. Purutasun hori bilatzen nuen. Noski, ez zen horrela izan. Baina hogei urte nituen, zer nahi duzu. Baina merezi izan zuen, asko pentsarazi zidalako gizartea antolatzeko moduaz. Botereaz. Mugez. Garai hartan bi gauza gertatu ziren aldi berean: Michel Foucault ezagutu nuen, eta psikiatria zentro batean hasi nintzen lanean. Foucaultek azaltzen zuen nola botere politiko eta ekonomikoak kontrolatzen gaituen, geu ohartu gabe, nolabait adostutako eta onartutako bizikidetza-arauen bidez, funtsean, diziplinan oinarritutako gizarte bat sortuz. Horretarako osasun zentroetako adibidea erabiltzen zuen, eta hara non, 23 urterekin psikiatria zentro batean hasi nintzen lanean, begirale gisa, larrialdi zerbitzuan, gauez. Oso esperientzia *heavya*. Eta noski, Foucaultek ni jaio aurreko errealitateaz deskribatzen zuen guztia zegoen han.

**Zelatatzeaz eta zigortzeaz mintzo zen bera.**

Hori bera. Nola ezarian kontrola daitekeen jendea. Errespetuaren ideiak ematen zidan atentzioa, esaterako. Errespetu falta izan liteke zentro psikiatriko batean arkatz bat amorruz lurrera botatzea. Eta une jakin batean pertsona bati hori egiten ez uztea oso bortitza izan liteke. Aldiz, errespetu falta arkatza bota duenarena da, eta, beraz, zigorra merezi du. Nik lan egiten nuen lekuan oso harro zeuden –eta lau haizetara esaten zuten– ez zutela jendea lotzen, baina gero neuroleptikoak ematen zizkieten geldi egon zitezen. Gauza bera da. Zibikotasuna eta bortizkeria eza ez da gauza bera. Zentro psikiatrikoetatik kanpo ere gauza bera gertatzen da. Kartzeletako eta psikiatrikoetako hormen atzean horma gehiago daude. Gogorrena ez dira debeku espli-

# Susana Minguell Alonso

**BARTZELONA, 1983**

Filosofoa eta idazlea. Bere bizipen propioetatik abiatuz, biktima roletik at, haurrei egindako sexu abusuen tabuaz mintzo da. Tabu handi baten korapiloa askatzeko baliagarri izan daitezkeen harimuturrak jartzen ditu bistan. Nahi duenak tira egin dezan.

zituak ala kontrol poliziala, baizik eta zeharkako kontrola, zibismoaren bandera astinduta egiten den hori.

Gogotik eragin zidan esperientzia hark. Pentsa, zentro hartatik neu ere diagnostiko batekin atera nintzen: depresio grabea. Oso sintomatikoa izan zen. Psikiatrak esan zidan 25 urte nituela eta ezin nuela horrela jarraitu. Antidepresiboak eman zizkidaten eta tabernan hasi nintzen lanean. Eta bestalde, Antropologia eta Kartzelari buruzko Bulego Soziala kolektiboan parte hartzen hasi nintzen.

**Orduan sartu zen abusuen gaia zure bizitzan?**

Urte askoan zehar, gauez ateratzean ez bageunden espazio seguruetan, giro normatiboan, alegia, oso babesgabe sentitzen nintzen. Eraso nindutela sentitzen nuenean, eraso egiten nuen. Oso bortizki. Eta 28 urte nituela, pisukideak esan zidan begiratzeko hori. Nire erantzunak neurriz kanpokoak zirela. Ordurako banekien zerbait bazegoela nire baitan. Oroitzapenak etortzen hasiak zitzaizkidan. Bortxaketa baten irudiak. Izan ere, armairutik atera nintzenean hori izan zen lehen erantzuna. Bortxaketa bat. 18 urte eta 3 hilabete nituen. Oso iluna zen oroitzapenen kontu hori. Gogoratzen nituen irudiak, baina emozioak ez zitzaizkidan heltzen. Gogoratzean ikusi baino ez nuen egiten. Ez nuen ezer ulertzen. Gehiegi zela sentitu nuen. Eta alde batera utzi nuen hura. Mila kontutan sartu nintzen buru-belarri, eta berriz ere ahaztu nuen kontua.

Baina denborak aurrera egin ahala, berriz ere irudiak etortzen hasi zitzaizkidan. Eta irudiekin batera sentimenduak. Hura izugarria izan zen. Lehertu egin nintzen. Nire gorputzak dena berreskuratu zuen. Berriz sentitu nituen haurra nintzela egin zizkidaten laztan nazkagarri haiek, esan zidatena... dena. Zeren noski, tratu txar fisikoak ez ezik psikologikoak ere badaude –abusuaren beraren tratu txar psikologikoaz gain–. Lan egiteari utzi behar izan nion. Dena utzi behar izan nuen. Psikologoarenera joan nintzen, berriz ere antidepresiboak eman zizkidaten... eta hor prozesu bat hasi zen. Prozesu luze eta gogorra.

> ***"Haur askorentzat familia ez da leku segurua, eta haur horiek badakite ahoa zabaltzea familia lehertzea dela; ardura hori astunegia da haurrarentzat"***

**Idazteak egin omen zizun on.**

Pixkanaka-pixkanaka, dena gogoratzera heldu nintzen. Bizitakoa eta sentitutakoa. Ahotsak entzuten nituen, aspaldi gertatutakoak sentitzen nituen... Ez nekien horrekin zer egin. Txikitatik idatzi izan dut, eta garai hartan pentsatzen nuen guztia idazten hasi nintzen. Burura zetorkidan edozer. Botaka egin nahi nuen, alde batetik, eta ulertu egin nahi nuen, bestetik. Eta idazteak asko lagundu zidan. Idazteak, eta laneko baja hartu ahal izateak. Oso prekarioa nintzen, baina horretarako aukera izan nuen, zorionez. Eta urtebete baino gehiago eman nuen topera, idazten. Husteko ez ezik nire burua berrirakurtzeko aukera eman zidan horrek. Poema pilo bat idatzi nituen. Eta auto-erretratuak egin ere bai. Argazkiak erabili nituen nire burua ikusten laguntzeko. Eta prozesu horretan nire burua nire bizitzaren erdigunean jarri nuen berriz. Ulertu nuen prozesu sakon batean murgilduta nengoela. Poemak irakurriz ulertu nuen prozesua bera ez zela lineala. Ez nuela beti gai berdinez hitz egiten. Batzuetan emozio batek hartzen zuela gaina eta beste batzuetan beste batek... baina bazeudela halako ardatz batzuk. Eta lau bloketan banatu nituen idatziak eta argazkiak. Amnesia tenporala, isiltasuna, haustura eta indar unea.

**Amnesiaren ondoren, isiltasuna.**

Amnesiaren osteko fasean isiltasunari bueltaka aritu nintzen etengabe. Isiltasunari eta erruduntasun sentimenduari. Konturatzen zarelako isilik egon zarela; zure barru-barruan bazenekiela eta isilarazi duzula zure baitan, eta baita besteei ere. Eta errudun sentitzen zara. Pixkanaka ulertu nuen horretan ere ez nuela nik ardurarik. Biziraupen estrategia bat dela amnesia bera. Haurtzaroan bizitako sexu abusuak mugaesperientziak direla. Kontzienteki edo inkontzienteki halako egoera baten aurrean badakizu zure integritate fisikoa arriskuan dagoela. Eta horren aurrean ahal duzuna egiten duzu. Ez gehiago. Eta edozer egingo duzu bizirauteko. Ahaztu, besteak beste.

Baina ohartzen zara ez zarela isildu den bakarra. Beste batzuk ere isildu direla. Izan ere, haurtzaroko abusu se-

xualen kontua ulertzen dugu biktima eta abusatzailearen arteko erlazio esklusibo bat bezala. Baina ez da horrela. Egitura oso bat dago abusuak sostengatzen eta baimentzen dituena. Eta horretaz konturatzeak eraman ninduen hausturara.

**Zer aldatzen da haustura une horretan?**

Haustura hura gertatu zenean utzi nion nire buruari obsesiboki galdetzeari, zergatik ni, zergatik niri, nolatan utzi nion, nolatan egon naiz isilik... Ohartu nintzen fokua galdera horietan jartzen banuen berriz indartuko nituela bere autoritatea eta nire erruduntasuna. Ez du zertan zergati bat egon.

Esperientzia bat izan zen. Gertatu zen eta kito. Eta hortik ulertu nitzakeen hainbat gauza. Gauetan zergatik erantzuten nuen hain bortizki erasoen aurrean, esaterako. Edo nire momentu batzuetako mututasuna edo paralisia nondik zetorren. Ispilu baten aurrean jartzea izan zen. Hau ere banaiz ni. Esperientzia nazkagarri hori jasan nuen. Halaxe da. Eta orain zer egingo dut horrekin? Berez, saihetsezina da neurri batean horrek zure bizitza definitzea. Nik nire hitzaldi eta ikastaroetan gai hau jorratzen badut abusuak bizi izan nituelako da. Baina nik erabaki dut, ahal bezainbat, nola definituko nauen esperientzia hark.

**Eta indar unean, liburua argitaratu zenuen?**

Bai. Beste nonbait kokatu beharra neukan. Bizitakoa beste nonbaitetik irakurtzeko eta kontatzeko beharra. Liburua argitaratzea salaketa publiko egiteko modu bat izan zen. Abusuen gaiari ikusgarritasuna emateko eta hori bizi izan duen pertsonak senti dezakeena azaltzeko modu bat. Ekintza politiko gisa ulertzen dut nik, ez testigantza gisa. Biktima roletik kanpo kokatzeko ariketa bat izan zen.

**Zergatik biktima roletik kanpo kokatzeko behar hori?**

Abusuak jasan ditut eta beraz, biktima naiz. Eta behar dut horren errekonozimendua. Baina rol horrek muga hertsiak ditu. Eta batzuetan ez dago modurik hortik ateratzeko eta epe luzera ez da leku bizigarria. Kontua da biktima roletik ateratzen bazara are gehiago baztertzen zaituztela. Biktima kategoriak, kategoria sozial guztiek bezalaxe, homogeneizazioa sortzen du. Haur batez abusatzea izan daiteke fisikoki ukitzea, baina baita film pornografiko bat ikusaraztea ere, edo beste norbaiten bortxaketaren lekuko egitea... Mila abusu mota daude, eta bakoitza bizitzeko mila modu. Baina biktima zaren unetik, badirudi magma erraldoi baten parte zarela, eta magma horren parte diren pertsona guztiek bizi izan dugula gauza bera, modu berean. Berdin sentitzen dugula eta behar berdinak ditugula. Eta hori, interpretazio bat izatetik eskakizun bat izatera pasatzen da. Orduan, ez baduzu patroi horrekin bat egiten, zure hitza zalantzan jarriko da.

## #MEETOINCEST

"Orain dela urtebete #MeeToInceste fenomenoa gertatu zen Frantzian. Jendea Twitter bidez haurtzaroan jasandako abusuak kontatzen hasi zen eta sekulako zalaparta sortu zen. Horrek gaur egungo feminismoaren gorakadari erantzuten dio, baina baita fribolizazio bati ere. Badago halako isiltasuna hausteko eskaera bat. "Hautsi isiltasuna! Hautsi isiltasuna!" Ez da justua abusuak jasan dituztenengan jartzea isiltasuna haustearen ardura. Pertsona batek isiltasuna hausten du babestuko duen inguru bat daukanean. Nik hautsi nuenean inguru bat nuen. Babesa neukan. Baina internetez, berez, hauste horrek ez du sare erreal bat bermatzen. Eta amorru pixka bat ere ematen dit jendea hitz egitera bultzatze horrek. Isiltasuna haustea nahi duzue? Hautsiko dugu. Haurtzaroan abusuak jasan ditugun guztiek kontatuko dugu gertatu zitzaiguna. Ados. Orain esan: uste duzue zuek jasan ahal izango duzuela? Gizarteak eutsiko diola horri? Isiltasuna hautsi eta kito? Hitz egitea ez da nahikoa".

## AMORRUA

"Amorrua kriminalizatuta dago, baina niretzat oso baliagarria izan da eta da. Espiritualtasunaren merkantilizazioaren garaian, gatazka, agresibitatea, gaizki ikusita daude, baina oso emozio sanoa da amorrua. Nire poema eta errezitaldietan abiapuntuak asko du amorrutik. Hasten naizenean, nire ahotsak, nire gorputzak eta nire hitzek ez dute bat egiten jendeak biktimaz duen irudiarekin. Eta deserosotasuna eragiten du horrek. Eta horixe da interesatzen zaidana. Amorrutik idatzi nuen liburua, amorrua erabiltzen dut errezitaldietan, eta amorru horrek entzuleengan deserosotasuna eragitetik aldaketarako aukerak sortzen dira. Ikuspegi analitikoa ere beharrezkoa da hauртzaroko sexu abusuen irakurketa politikorako. Baina batak ez du bestea kentzen, eta nire tailerretan biak lantzen ditut batera".

Izena galtzeaz gain, biktimak ahotsa ere galtzen du, ez bada testigantza moduan azaltzeko zehatz-mehatz zein gauza izugarri egin zizkioten. Biktima gisa zugandik jarrera jakin batzuk espero dira. Biktima jarrerak. Ezin duzu zure amorrua agresibitate bidez adierazi. Ezin duzu alai egon. Parrandan ibili. Triste egon behar duzu. Apal. Ahul. Isilik. Bortxaketa kasuetan bezalaxe.

Ez dut esan nahi biktima rolari uko egin behar diogunik eta bortxaz atera behar dugunik rol horretatik. Abusuak jasan dituzten pertsonek egin dezatela nahi eta ahal dutena. Besteek dute egitekoa honetan. Pentsatzeko modua aldatzeko. Haien buruari galdetzeko biktimei errekonozimendua ematen dietenean nondik ari diren, parez pareko harreman batetik ala sorbalda gainetik, eta distantziatik.

**Zaila da tabua den zerbaitekiko hurbil sentitzea.**

Bai. Horregatik da beharrezkoa tabua lehertzea. Haurrei egindako abusuak izugarrikeriatzat jotzen dira, baina izugarrikeria baino gehiago, onartzen eta baimentzen den zerbait da. Ikuspegi morala errazegia da, eta batez ere, ez du ekarpen handirik egiten. Haurrei egiten zaizkien abusuak problema politiko bat dira. Osasun publikoko arazo bat. Moralki baino aztertzen ez baditugu ez ditugu haurrei egindako sexu abusuen oinarrian dauden mekanismo sozialak ulertuko, gizarte honetako harreman modu batzuekin lotuta daudenak. Kontua ez da gizakiak eta munstroak bereiztea. Kontua da ulertzea nola gizarte batek sortzen dituen norbanako batzuk haurrei abusuak egiten dizkietenak. Abusatzailea dago eta pertsona normalena izan daiteke. Gauden auzo honetan bertan biziko dira hainbat.

Tabua da, baita ere, haurrei egindako abusuez hizketan hasten bagara familiaz hitz egiten bukatuko dugulako, eta familia delako estatua eta sistema kapitalista sostengatzen dituen instituziorik behinena. Baina haur askorentzat familia ez da leku segurua. Haur horiek badakite, gainera, ahoa zabaltzea familia lehertzea dela. Eta horren ardura pisu astunegia da haur edo nerabe batentzat.

**Denon ardura da. Baina zer egin norbere arduratik?**

Oso konplikatua da. Uste dut garai hauek horretan pentsatzeko egokiak direla, karga moral hori kentzeko eta gaia plano politiko batetik aztertzeko. Baina hasteko, abusuak jasan dituztenak eta ez dituztenak maila berean jartzea ez legoke gaizki. Eta bestetik, gaia ohikotasunean kokatzea, eta ez egunkarietako tartekako tituluetan. Save The Children erakundearen arabera, espainiar estatuan lau neskatatik batek eta zazpi mutiletatik batek jasan dituzte sexu abusuak haurtzaroan edo nerabezaroan. Ohikoak dira, beraz, estatistikaz, eta ohikoak askoren bizitzetan ere: haur askok jasaten dituzte abusuak egunero, gaur bai eta bihar ere bai.

Eta errealitate hori gure harreman moduekin lotzea ezinbestekoa da. Mugak erabakitzeko helduok dugun eta haurrei kentzen diegun botereaz ohartzea. Zergatik eman behar dio bilobak musu aitonari nahi ez duenean? Zuk bi musu eman beharko diozu jasaten ez duzun norbaiti. Baina nahi dugu haurra ere behartuta sentitu dadin? Noraino? Guk konbentzioz egiten ditugu hainbat gauza, baina haurrei haien mugak jartzeko gaitasuna kentzea arriskutsua da. Haurrari esaten zaio nor maite behar duen, nor ez, zer desio behar duen eta zer ez. Eta abusuetara iritsi gabe, haurren gorputzen jabe egiten gara helduok. Helduek jarritako mugak onartzeko hezten ditugu, baina ez dizkiegu erakusten non dauden haiek helduei jar diezazkieketen mugak. ●

# Erronkaz beteriko garaia

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Joan den udaz geroztik, ekonomiaren susperraldiari buruz entzuten ari gara; herritarren gehiena txertatzerakoan, ekonomiak hazkunde historikoa jasango du. Enegarren krisi hau ustekabean agertu zela helarazi digute, eta txertoei eta mana europarrari esker magikoki gaindituko dela.

Kapitalismoan krisiak zerbait endemikoa direla aipatzea ahaztu egiten zaie gobernu eta analistei, kapitalismoaren funtzionamenduaren bihotzean dagoela: azken 150 urteetan munduan hamalau atzeraldi handi gertatu dira. Kapitalismoaren egiturazko arazoak hor zeuden jada, eta Atzeraldi Handiak eta 2020ko krisiak arazo horiek larriagotu besterik ez dituzte egin. Epe luzeko azterketa egiten badugu, ekonomia inperialista nagusietako irabazi-tasak behera egin dute, Michael Roberts eta Esteban Maito ekonomialariek aztertu duten bezala. Hainbat gobernuk irtenbidea eman nahi dioten arren, beheranzko bide hori sendotzen ari da, eta pandemiak joera bizkortu besterik ez du egin.

Hala ere, atzeraldi horiek gorabehera, aberastasuna sortzen jarraitu da; beste kontu bat da zeren eta nortzuen kontura. Azken 40 urteak hartuz gero, Euskal Herrian aberastasuna (Barne Produktu Gordina hartuta) bikoiztu egin da, nahiz eta 2008ko Atzeraldi Handia pairatu dugun. Txanponaren beste aldea soldatapeko langileena da, BPGean duten parte hartzea 2006tik gaur egun arte behera egin baitu, eta azpimarratzekoa da estatistika horietan mileuristak zein urtean 90.000 euro kobratzen dutenak sartzen direla. Kapitalak bereganatu du aberastasuna, soldatapekoen lepora. Egoera horretan geunden pandemia lehertu aurretik. Epe laburrean, litekeena da koadro teknikoak izatea beren lan-baldintzak eta soldatak murriztuta ikusiko dituzten hurrengoak: sistemarentzat ez da oso jasangarria 800 euroko soldatak murriztea, baina oraindik badago tartea maila altuagoko soldatak murrizteko.

> Ekonomia mugitzeko eta aberastasuna sortzeko funtsezkoak diren langileak izango dira gakoa. Noski, langilearen kontzeptu fordista atzean uzten badugu

Langileentzat, aurrean daukagun argazkia ez da batere ona. Hala ere, klaseen arteko etengabeko borroka honetan, dena ez da kolpeak jasotzea. Azken aldian, gatazkan dauden enpresetako langileak lan handia egiten ari dira indarrak batzeko, Tubacex, Petronor, IPT eta antzekoak kasu. Pandemiarekin elkarrekiko laguntzaren kontzeptu libertarioa ere berpiztu da, elkartasun sareak eta etxebizitza sindikatuen ugaritzea horren isla dira. Klaseen arteko borrokak bizitzaren alderdi guztiak hartzen dituelako, ez bakarrik lan mundua.

Hamarkada garrantzitsua dugu aurretik. Krisi multisistemikoak ekarritako arazoak erritmo esponentzialean handituko dira. Ezin dugu itxaropena pandemia osteko hazkunde ekonomikoaren esku utzi, agerikoa baita kapitalak bereganatuko duela hazkunde hori, guztion kontura: 2008ko Atzeraldi Handia adibide argia da. Irtenbidea ez da etorriko elite baten eskutik, nahiz eta "jakintza gorenena" izan. Ekonomia mugitzeko eta aberastasuna sortzeko funtsezkoak diren langileak izango dira gakoa. Noski, langilearen kontzeptu fordista atzean uzten badugu, beti anitzagoa izan den langilearen definizio zabala azpimarratuz. Batzen gaituzten puntuak bilatuz eta aniztasun horretatik borrokatuz.

Aurreko hamarkadako akatsetatik ikasiz, ekonomiaren nondik norakoak ulertuz eta dauzkagun erronka handiak identifikatuz, lan gogorraren bitartez, denentzako mundu hobea lor daiteke. Hori da gure erronka, hori da gure itxaropena. ●

# Akademia eta herrigintza

ANTTON OLARIAGA

**KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE**
LITERATUR ZALEA

Zutabe hau idazten ari naizen unean, Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) jardunaldi interesgarri bat iragaten ari da Iruñean, 49. Udako Ikastaroen baitan: *Akademiatik herrigintzara, herrigintzatik akademiara*. Plazerez entzunen nituen mahai inguruko hizlariak, baina zorigaitzez, lan eginbeharrengatik ez naiz joan ahal izan. Ekitaldiaren aktak edo grabaketa erdietsi artean, zenbait hausnarketa egin gogo nuke funtsezko gai horretaz.

Leporatzen zaio maiz unibertsitate akademikoari herri kezketarik, herritarrengandik eta oro har mundu errealetik urrun geratzea, eta hein handi batean, egia da. Ohar hori, ez da Euskal Herrian bakarrik egiten. Dakidanez, Frantzian gaindi azpimarratzen da unibertsitatearen huts handia dela ikasleak ez aski prestatzea merkatuko errealitatera, bestela erranda, langile enplegagaitzak formatzea. Funtsean, munduko unibertsitateak sailkatzen dira, besteak beste, formatu dituzten ikasleen enplegagarritasunaren arabera. Sistema kapitalistak eragin dituen behar sozio-ekonomikoei hobeki erantzun diezaien galdegina zaio beraz unibertsitateari. Baina ez du ildo horretatik bideratu gogoeta UEUk, unibertsitatearen lehen funtzioa ez baitaiteke izan jendea lan mundu berezi batendako formatuan ezartzea, baizik eta ikasi eta izpiritu kritikoa zorroztu nahi duten pertsonak formatzea.

Ikusiz haatik, Iparraldean behintzat, zoin baliabide urriak dauzkan unibertsitateak, ikusiz irakasleei kurtsoak metatzen zaizkiela, lan administratiboa pilatzen, eta ikerketarako ez dutela kasik gehiago denborarik, iruditzen zait nehoiz baino gehiago harreman sendoak azkartu behar direla unibertsitatea eta herrigintzaren artean: indarrak batu behar dira kolektiboki sustengatzeko jendartean ernetasun eta irekidura intelektuala, bai eta jakitate gose eta transmisioa ere.

Mundu akademikoaren eta herrigintzaren arteko loturak literaturaren sailera eramateko, erran nezake iraganak erakusten digula jakintsu akademiko arrotzei esker abiatu dela zinezko interes kritikoa, Francisque-Michel eta Vinson bezalakoekin. Ondotik agertu dira tokikoak, Euskaldunen Biltzarra edo Euskaltzaindia izan aitzin herritar gisa lehenik ari izan direnak literatura ikertzen eta balioztatzen. Sorkuntza literarioa begiratzen badugu, adibidez narrazioa saila, ohartuko gara lehen kontaketa egileak beren garaiko jendarte intelektualetik jalgiak zirela, baina biziki garrantzitsua izan zitzaiela herri literaturarekin harremanetan egotea beren lanetan. Pentsatzen dut hemen Bizenta Mogel, Zaldubi edo Oxobi bezalako alegialariei, haiek abiarazi zutelako narrazio generoa euskal literaturan: lortu zuten, alegia genero erdi-jaso erdi-herrikoia hautatu zutelako, irakurlego zabala ukan zutelako xede, eta ez beste batzuek bezala publiko kultua bakarrik (hala nola Juan Antonio Mogelek *Peru Abarka*-rekin).

Beste jakitate edo sorkuntza esparruetan ere erakuts daiteke euskal kultura eta gizartea aitzinatu direla mundu akademikoa eta herrigintzaren lanak bide beretik eta bat bestea sustengatuz joan direnean. Erakunde publikoak ahultzen ari diren garai honetan, sekula ez baino gehiago beharrezkoa da, ene ustez, bien arteko elkar laguntza. Iparraldean dauzkagu elkarte kultural sendoak, Euskal Kultur Erakundea lehen... eta unibertsitateak, ikerketa laborategiekin batera, saiatzen da bulgarizatzen bere jakitatea. Elkarlan gehiago egin daiteke oraino, segur, herritarren eta herriaren onerako. ●

# Euskalgintzaren olatu kooperatiboarekin jarraitu

**BEÑAT IRASUEGI IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Kooperatibismo eraldatzailearen garapenean gabiltzan eragileek bost olatu kooperatiboren bitartez kontatzen dugu euskal kooperatibismoaren garapena, bere historiari sakonera, eta izaerari aniztasuna emateko asmoarekin. Bide horretan, pasa den mendeko 60-70. hamarkadetako euskal iraultza kulturalak ekarri zuen autoeraketa proiektuen loraldian kokatzen dugu hirugarren olatu kooperatiboa.

Olatu hark gaur egun arte iritsi den uzta oparoa eman bazuen ere, proiektu batzuk erdibidean geratu ziren edo benetan garatu gabe, hamabost urtez Arantzazuko bide bazterrean egon ziren Oteizaren harrizko apostoluak bezala. Zer gertatu zen bidean?

70eko hamarkadak autoeraketarako aukera asko eman zituen, dena egin beharraren pultsioak dinamika herritar indartsuak garatu baitzituen. Baina institucionalizazioaren garaia ere izan zen, autoeratutako tresnek forma egonkorrak lortzeko beharra ere izan baitzuten. Behar hori hiru modutan garatu zen: publiko-administratiboan, merkatuan eta ekonomia sozialean. 78 erregimenaren paradigman eremu publikoaren garapena handia izan zen. Euskalgintzan ere, batez ere hasieran, hainbat proiektu autoeratuk izaera publikoa hartu zutelarik, beti ere autonomien estatuaren markoan. Denboran aurrera ildo hori lausotzen joan zen, bereziki merkantilizazioaren paradigma gailendu zelako, eta momentu batetik aurrera, helburu eta ikuspegi publikoa edo komunitarioa zuten proiektuek merkatu kapitalistaren markoan homologatzera jo zuten. Non gelditu da ekonomia sozialaren ildoa orduan?

Proiektu askok, eredu estatal autonomikoa ala merkantila dikotomiatik ihesi, hasieratik edo ondoren hartu dituzten formula kooperatiboetan aurrera egitea erabaki dute, ekonomia sozialak eskaintzen duen autonomia komunitarioaren bidea landuz. Euskalgintzaren oinarrietan, zer eta nola galderei erantzutea garrantzitsua izan da: euskaraz bizitzeko baliabide eta egiturak sortu dira, bai, baina horiek modu herritar eta demokratikoan kudeatzeari garrantzia eman zaio, elkartasuna oinarri hartuta.

Datozen garai nahasi eta apokaliptikoetan, garrantzitsua izango da euskalgintzak egiten duen hautua: homologazioa ala eraldaketa; sumisioa ala burujabetza. Baditugu etorkizunak euskaraz marrazten dituzten proiektuak, Aiaraldea Ekintzen Faktoria adibidez. Kooperatibismoa eta lan burujabea tresna garrantzitsuak izango dira eraldaketaren bidean. ●

# Ezinduak

**ITXARO BORDA**
IDAZLEA

Iparraldean ere azken hauteskundeen bi itzulietan, hiru bozkatzaileetatik bi etxean gelditu da. Koronabirusaren ondorioa litekeela erran dute batzuek eta besteek, bozka bidezko joko demokratikoaren aldeko gaitzeko desengainua nabaritzen dela azpimarratzen dute. Demokrazia, gaurkoan, gure kantu zahar batek zioenez, *zerri-askara botatzekoa* bihurtu da, karrikak sutan uzten dituen gobernuaren kontrako ekintza zuzenaren faboretan: bozkatzera joateak, egia, ez du adrenalinaren neurria biziki harrotzen.

Macronen errua da. 2017az geroztik baztertu eta gutxietsi ditu bitarteko botereak, hala nola alderdiak eta sindikatuak. Jendeak ez du gehiago biderik aurkitzen bere herritar-lekuaren finkatzeko. Zirku eta ogirik aski ez baldin badu, halatan, asaldatzen da, oldartzen, eskuin-muturretara plegatzen, salbazioa handik etorriko bailitzaion...

Abstentzioa ulertzen saiatzen gara. Baina urrunegi joan gabe, nagikeria baten zoruan altxatzen dela erants genezake, balio gabeko eginkizunetan igandea galtzeko beldurrean eta aburu politikoz janzten den oroz bateko axolagabetasun larri batean. ●

# Zertan da hezkuntzako 3L proiektua?

**MIKEL BASABE KORTABARRIA**
IRAKASLEA

Galdera egiten dut, ez baitakit une honetan zelan dagoen "esperimentazioa" izan behar zuen proiektu hori. 2014an ebaluatu zuten, eta harrezkero, nik dakidala, ezer ez: ez arre, ez iso. Ez orokortu, ez kendu. Emaitzarik ematen du batere?

Ai, barkatu, irakurle! Niretzat hain da ohikoa 3L kontzeptua ze, pentsatu dut badakizula zertaz ari naizen. Begira: ipuinak "bazen behin..." hasten diren bezala, Hezkuntza Hirueledunaren Esparrua modu esperimentalean honelaxe abiarazi zuten: "Bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza hezkuntza-sisteman nahiko egonkorturik dagoen honetan...", 2010ean!

Sozialisten hauteskunde-programan agertzen zen 3L proiektua nahitaez abiarazi behar izan zuten modu esperimentalean; izan ere, bertan planteatzen denak lekurik ez du indarrean dagoen hezkuntza-legean. Horretan, hiru eredu ezartzen dira, A, B eta D, zehaztuz irakaskuntza-hizkuntza gaztelania edo euskara izango direla. 3L proiektuak, ostera, ingelesa ere sartzen du irakaskuntza-hizkuntzen artean, eta ez nolanahi sartu ere: orduen %20 irakatsi behar dira ingelesez. Gaztelaniaz beste hogei, eta euskaraz ere, ehuneko hogei. Falta diren orduak, guztizkoaren %40, ikastetxeak erabakitzen duen hizkuntzan ematen dira. Zeren arabera erabaki? Batek daki. Kontuan izan behar baita ebaluazio diagnostikoetan Hezkuntza Sailak ez duela mintzamena neurtzen. Ezta idatzia ere: ulermena baino ez du neurtzen.

> Arduragabea da 3L esperimentazioa lege berria onartu arte mantentzea, benetan lortzen dituen emaitzei buruzko ikerketa egin barik

Horri gehitu behar zaio gure sistemako ikasleek ez dutela kanpoko azterketarik egiten euskaraz benetan duten ezagutza erakusteko: B1 onartzen zaie DBH D edo B ereduetan ikasitakoei, eta B2 batxilergokoei. Baita 3L eskola batean ikasi badute ere. Hau da, baita euskaraz irakastorduen %20 besterik izan ez badituzte ere.

Pentsatzen dut Jaurlaritzak hezkuntza-lege berria onartu gurako duela legealdi honetan. Gehiengoa badu, eta ikusi egin beharko da kontzertatuen alde dauden oposizioko taldeek zer erabaki hartzen duten. Baina arduragabea da 3L esperimentazioa lege berria onartu arte mantentzea, benetan lortzen dituen emaitzei buruzko ikerketa egin barik. Ikerketa serioa, ahozkoa ere kontuan hartuko duena.

Arduraz jokatzea litzateke, berriz, lege berriko testurako Jaurlaritzak hezkuntza-eredu bakarra planteatzea, urte bikoen gelatik DBH4ra hartuko duena, zeinean euskara izango den lehenengo urteetako irakaskuntza-hizkuntza eta gainerako biak, gaztelania eta ingelesa, mailakaturik sartuko diren, ikasturteetan aurrera egin ahala. ●

40-10€

40-10€

60-20€

20-5€

40-10€

20-5€

# #euskadi turismo bono

40-10€

Euskadiko turismo-bonuarekin, gastronomiaz, ostalaritzaz, hotel-gauez, txangoez, bisita turistikoez eta askoz gauza gehiagoz gozatu ahal izango duzu. **Erosketak egiteko 20, 40 eta 60 euroko deskontuak**, Euskadin zehar galtzeko eta aukerarik ez galtzeko.

Informatu euskaditurismobono.eus webgunean.

# PLATAFORMA DIGITALAK: NON GALDU DA EUSKARA



Bizitzak gero eta digitalagoak dira, gero eta ikus-entzunezkoagoak. Kontsumo-ohiturak ere halakoak dira: Hego Euskal Herriko euskal hiztunen erdiak du plataforma digitalerako sarbidea. Gu egokitu gara, jendea egokitu da. Baina gure hizkuntza, egokitu al da?

**GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA**

EITB taldeko zuzendari nagusi Andoni Aldekoak Eusko Legebiltzarrean agerraldia egin eta egun gutxira, ikus-entzunezkoen munduan aritu eta aditu diren hiru lagun mahaiaren bueltan hitzartzea gozoki bat da. Joko handia ematen duen gozokia. Hasi orduko lehen hitzak, laburpen xehea: "Nahiko harrigarria egin zitzaidan agerraldia. Beno, jada ez nau ezerk harritzen".

Hainbat ikerketa-lerro barnebiltzen ditu Euskal Herriko Unibertsitatearen bueltan antolatzen den NOR ikerketa taldeak. Euskarazko ikus-entzunezkoak aztertzen dituzte, eta aterki horren azpian, nagusiki, hiru zehar-lerro bereiz daitezke: hizkuntza gutxituak, komunikazioa eta identitatea. Ikerketa taldeko kide dira Libe Mimenza, Katixa Agirre eta Miren Manias. Hirurak elkartu ditugu. Bakoitzak du bere esperientzia, ideia eta gustuko lan-lerroak, eta zerbaitek elkartzen baditu, euskarazko ikus-entzunezkoen errealitateari eta etorkizunari buruzko kezka da.

Mahaian lehen kolpea, hasi bezain pronto, Mimenzak eman du: "Noiz utzi behar diogu Netflix bezalakoei plataforma berri deitzeari?". Berri-berriak ere ez direlako eta, gainera, CIESen inkestari erreparatuta, kontsumoa oso orokortua dagoela esan daitekeelako: Hego Euskal Herriko euskal hiztunen %47ak erabiltzen ditu. Horregatik, EiTBko zuzendari nagusiak *Euskal Netflix* delakoa aurrerakoi eta berritzaile gisa saltzea harriduraz hartu dute hirurek, izan ere, halako zerbaitek "duela hamar urte pentsatuta egon behar zuen" Agirreren ustez. Gainera zer eta multinazionalaren marka erabilita. "Eta finean, zer diferentzia dago EITB Nahieran plataformarekiko?", partekatu dute galdera, eta zalantzan geratu dira. Edo hobe esanda: xehetasun faltan. Xehetasun eske. Zer egiteko asmoa dagoen zehaztu gabe utzi zen aipaturiko agerraldian.

Joan den udazkena euskal telesailen urtaroa izan da ETBn. Hiru telesail ekoiztu dituzte euskaraz, launa kapitulukoak. Elkarrizketatuek positibotzat jo dituzte produkzioak, "baina jarraikortasuna falta da". Maniasek dio luzera begirako proiektu bat behar dela, estrategia bat, baina uste du lau urtean behin gidaritza-taldea aldatzeko aukera egotea oztopoa dela. "Zerbaitetan dabiltzala dirudi, tarteka zerbait potentea egiten da, baina benetan ez dut ezer ikusten horren atzean; oso mami gutxi du". Eta Mania-

Argazkian Pantailak Euskaraz mugimenduko hainbat kide. Mugimendua Netflix Euskaraz eta Disney Plus Euskaraz taldeek, Tinko euskara elkarteak eta Bieuse bikoizleen elkarteak sortu dute. GORKA RUBIO / FOKU

sekin ados egonagatik, jomuga orokortu du Mimenzak: "Bizi dugun ekosisteman lur hartu gabe gaude oraindik. Sentsazioa daukat etengabe begiratzen dugula betaurreko analogikoekin".

## EGITEKO MODU BERRIAK

"Egiteko modu berriak eskatzen ditu garai honek", dio Mimenzak. Sarritan hitz egin eta kritikatu izan da EiTBren estrategia falta, eta euskarazko ekoizpenen erreferente izan behar duen heinean, batik bat diru publikoz finantzatua delako, aztertzen eta kritikatzen jarraitu behar dela uste dute hirurek, baina norbanako eta komunitate bezala perspektiba aldatu beharraz hitz egin dute: "Perspektiba tradizionala eta digitala dena nahastuta dauzkagu, sumendi bat bezala, baina aurretik jarrita dauzkagun hainbat ardatzek ez digute balio". Gauzak honela, industria beste era batera antolatu beharra dagoela azpimarratu dute.

Telebista tradizionalaren eta plataforma berrien arteko mugak gero eta lausoagoak direla dio Mimenzak, eta bigarrenera gehiago jotzen denez, geroz eta gehiago gainera, fenomeno horretara egokitu behar da ikus-entzunezkoaren industria: "Lehen bageneukan ikus-entzunezko produkzio komun bat. Ideario bat. Lau telebista-kate. Gaur egun bakoitzak berea kontsumitzen du; algoritmoak ematen diguna eta lagunarekiko ezberdina. Esperientzia pertsonalizatua da, lehen zenaren kontrakoa". Ikus-entzunezkoez inguratutako bizitzak ditugula jakitun izan, onartu, eta egungo errealitatetik eraikitzen hasi behar dela gehitu dute Maniasek eta Agirrek. Eta hiruren jomuga, bera: erakusleiho on bat, kontsumoa erraztuko duena eta euskarazko edukia ondo antolatuta izango duena.

Argi diote zein izan behar den ardatz nagusia: euskara. Euskararen bueltan ardaztuko den ikus-entzunezkoen industria. Horixe da hiruren ustez nagusiki falta dena eta bere osotasunean, kezkagarriena. "Telebista publikoa daukagu, baina ez da gure hizkuntzaren gainean ardazten eta Euskal Netflix esaten denean ere, ez da euskararen gainean ardaztuko. Oso zaila da itsaso honetan euskarak bere txokoa izatea", adierazi du Mimenzak. Euskara ardatzean jarri ezean, "fartsa" bat izango da guztia; gure hizkuntza gutxiagotua are gutxiagotuko duena.

JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

Miren Manias eta beste bi mahaikideek argi dute jomuga: "Erakusleiho on bat, kontsumoa erraztuko duena eta euskarazko edukia ondo antolatuta izango duena".

ARITZ LOIOLA / FOKU

Libe Mimenza: "Telebista publikoa daukagu, baina ez da gure hizkuntzaren gainean ardazten, eta Euskal Netflix esaten denean ere, ez da euskararen gainean ardaztuko".

ENDIKA PORTILLO / FOKU

Katixa Agirreren ustez, duela hamar urte pentsatuta egon behar zuen Euskal Netflix moduko batek.

## NOLA EGIN ARRAUN?

Nostalgia puntutik hitz egin dute iraganaz, duela bi eta hiru hamarkada, euskarazko eduki eskaintza –batez ere haurrena– oso handia zelako. "Kate gutxi zeuden, itsasoa ez zen hain handia, eta ez ginen galtzen", dio Agirrek. Tragediaz bizi du oraingoa. Besteek aurrera egin dutenean, uste duelako euskarak hasierako lekuan geratu baino, atzerapausoa eman duela. Askoz gutxiago produzitzea, horren adibide. Borondate politikoari eta, batez ere, kontzientzia politikoari egotzi dio errua, politikariak ez direlako jakitun ikus-entzunezkoek zer inportantzia duten gaur egun gizartea eratzerako orduan.

"Baina nik uste dut jendeari oso gutxi axola zaiola hizkuntza, telesailak eta filmak kontsumitzerakoan", azaldu du Maniasek. Alegia, hizkuntza bigarren planoan geratu dela, eta saritzen dena, gidoia dela. Mimenzaren ustez, fenomeno hori fikzioan ematen da eta ez, aldiz, informazio-saioetan. "Oraindik ere propioki bilatzen da hizkuntza, ideario baten bila edo, gertutasuna ematen duelako agian". Dena den, hirurek argiki diote trantsizio garaiak bizi dituela ikus-entzunezkoen kontsumoak. Telebistan, akaso, mantentzen da hizkuntza aktiboki hautatzearen garrantzia, baina Agirrek uste du, telebistatik plataforma digitaletara ematen ari den trantsizioaz ez dela kezkatu behar. Trantsizio teknologiko naturala dela dio: "Zergatik egongo naiz 22:00ak heldu zain, eta tartean iragarki luzeak irentsi, nahi dudanean ikusi badezaket nire mugikorrean?". Trantsizio horretan, fenomeno honek bere egin ditu hainbat ezaugarri, tartean askok oso gustuko ez zuena orain ez hainbeste urte: azpitituluak. Belaunaldi berriak oso ohituta daude azpitituluak irakurtzen. AEBetan arreta piztu zuen audientzia-ikerketa batek: inoiz ez denean ingelesez ez den beste ezer ikusi, orain hasi dira horretan, azpitituluekin.

Hizkuntzek inoiz baino errazago bidaiatzen dute orain. "Orduan, baldintzek hala diote, edozein hizkuntza sar liteke mundu horretan, eta ez da sekulako azpiegitura behar", dio Agirrek. Baina hori bai: "Lehenengo sortu egin behar da, sortzeko baldintzak eman, eta gero zabaltzen jakin". Horregatik jarri dute jopuntuan ETB, diru publikoaren muskulua delako eta, beraz, motorra izan beharko lukeelako.

## ERREGULATU BEHARRAZ

"Gauza bat da erregulatzea eta bestea betetzea", adierazi du Mimenzak, Europar Batasunaren ikus-entzunezkoen direktibaz galdetzean. Ikus-entzunezkoen Lege Orokorra aztertzen ari dira Espainiar Estatuan eta Pantailak Euskaraz ekimenak legearen inguruan dituen ideiekin bat egin dute hirurek: legeak hizkuntza gutxituak babes ditzala, erregulatu dezala industria, baina gero legea bete dadila. Dena den, uste dute, Europa mailako mugimendu bat sortu ezean, edo domino efektu bat, txikitasunetik oso zaila litzatekeela emaitzak lortzea.

"Onartu behar dugu, hala ere, euskarak badaukala posizio bat mundu honetan", esan du Mimenzak, eta bat etorri dira Manias eta Agirre. Geroz eta jende gehiagok daki euskara, baina sozializatzeko aukerarik ematen ez bada, kalean eta esparru digitalean, diluituta geratzeko arrisku larria dagoela uste dute. Hargatik, nahiko argi diote, lege-babesa beharrezkoa duela euskarak ingurune digitalean. Baina horrez gain, ekosistema digital honetan "behingoagatik lur hartu" eta hausnarketarako espazioak eman behar direla dio Mimenzak: "Pausoak eman ezean, noiz arte iraungo du euskarak? Diluituta geratzen garen arte. Eta gaur egun bizi dugun mundu oso digital hau, diluitzeko arrisku askoko ingurunea da".

# “Euskara plataformetan indartsu sartzen da edo euskararen etorkizuna oso kolokan egongo da”

Alex Aginagalde – Pantailak Euskaraz ekimeneko bozeramailea

Pantailak euskaraz nahi dituzte, baina badirudi asko eskatzea dela. Multinazionalek ez dizkiote ateak irekiko herritar talde bati, baina legea betetzera behartuta daude. Lege babesa behar du euskarak *streaming* plataformetan, etorkizuna bermatu nahi badu.

**Proiektua aurkezteko “une aproposa” zela esan zenuten.**
Bai, hala uste dugu. Ikus-entzunezko plataforma digitalen kontsumoa horrenbeste hazi den garaiotan, gaur egungo gazteek euskararik gabe bizi dute aisialdia. Soziolinguistikako datuek diote euskararen erabilera egonkortu egin dela, eta hori, nolabait ere, erlazionatuta egon daiteke azken hamarkadan euskarazko telebistaren eskaintzaren beherakadarekin. Pentsa, 1990eko CIESen datuek zioten, EAEko haurren %70ak Euskal Telebistako marrazkiak ikusten zituela. Orain, hutsaren hurrengoa da.

Jada, belaunaldi txiki bat galdu dugu. Eta horregatik diogu une hau aprobetxatu behar dugula: edo euskara plataformetan indartsu sartzen da edo euskararen etorkizuna oso kolokan dago.

**Disney Euskaraz ekimenarekin abiatu zen guztia, azaroan. Netflix Euskaraz batu zitzaion udaberrian.**
Euskaraldiaren testuinguruan, kezka bera partekatzen genuen Donostiako guraso talde batek. Jakin berri zen, Katalunian, Disney+ plataforma katalanez jartzeko akordioa lortu zutela, 30.000 sinadura bildu ondoren. Hortik abiatu ginen, eta hasiera batean, Disney Euskaraz kanpainak arrakasta izan zuen. Ikusi genuen benetako kezka bazegoela jendartean. Urte berrirako 5.000 sinadura bildu genituen, eta gutun ofizialak bidali genizkien erakundeei. Iritsi zitzaigun erantzuna: Eusko Legebiltzarreko Kultura Batzordean agerraldi bat egiteko proposamena. Egin genuen agerraldia, oihartzun dezente izan zuen komunikabideetan, eta egun batzuetara, Bizkaiko beste herritar batzuek Netflix Euskaraz sinadura kanpaina abiatu zuten. Biak elkartzetik dator Pantailak Euskaraz.

**Erakundeen erantzuna, Kultura Batzordean agerraldia egiteko proposamenean geratu da?**
Instituzioak ez dira gurekin harremanetan jarri.

Aginagalde jakitun da urtean oso euskarazko film gutxi ekoizten direla: “Hamar bat, asko jota?”. Netflixen berriz, 6.000 daudela dio. Halako kopuru murritzarekin plataforma bat ezin dela elikatu uste du eta horregatik dela ezinbestekoa ekoizpen arrakastatsuenak euskarara ekartzea bikoizketa bidez eta azpidatzien bidez.

DANI BLANCO

**Zein eskaera egin zenituzten?**
Gure eskaera bikoitza zen. Batetik, Disney multinazionalari eskatzen genion hizkuntza eskubideak errespetatzeko; eta bestetik, hemengo erakundeei eskatzen genien harremanetan jar zitezela multinazionalarekin, plataforma horretan euskarazko edukiak ere sartzeko.

Bereziki, Eusko Jaurlaritzari egiten genion deia, jakin badakigulako EAEko ekoiztetxeak zinemetan haur filmak euskaraz ere estreinatzera derrigortzen dituztela. Beraz, atzerriko ekoiztetxeei ere gauza bera eskatu beharko litzaiekeela uste dugu. Horretarako, behar den legezko babesa sortu beharko litzateke.

**Ordutik, Eusko Jaurlaritzak zerbait egin al du?**
Zeharka jakin dugu Disneyrekin harremanetan jarri eta euskara babestearen aldeko saiakeraren bat egin dela, baina ez omen du arrakasta handirik izan. Ez omen dute erantzun positiborik jaso.

**Netflix multinazionalarekin ere bildu da, maiatzean.**
Publiko egin zen notizia, baina ez besterik. Guk zeharka jakin duguna da "sintonia ona" izan zutela bi aldeek. Badirudi prestutasuna agertu zuela multinazionalak euskarazko edukiak bere plataforman txertatzeko. Ez dakigu ez zenbat, ez nola, ezta zein eduki ere.

**EiTBk, berriz, Euskal Netflix delakoa badatorrela iragarri du. Guztia ez dela euskaraz izango, baina euskarak bere tartea izango duela esan dute.**
Positiboa iruditzen zaigu Andoni Aldekoa zuzendari nagusiak gure diskurtsoa bere egin duela ikustea, agerraldi horretan esan zuenean *streaming* plataformetan "euskara indartsu egotea beharrezkoa dela euskararen etorkizuna ziurtatzeko". Hori da guk defendatzen duguna. Baina noski, hori lortzeko tresna elebidun bat sortzen baduzu, eta ikusita EiTBren elebitasunak baliabide ekonomiko, pertsonal eta tekniko gehiena gaztelerazko kateetara bideratzen duela, oso arriskutsua izan daiteke. "Euskal" den plataforma batean euskara bigarren mailan gera daiteke.

**Argi dago euskarazko ekoizpena sustatu egin behar dela, ezta?**
Alde batetik, euskarazko eta bertako ekoizpenak katalogoan txertatu behar dira, eta horretan indarra egin beharra dago, bertako ekoizpenak sustatzeko. Baliabide gehiago jarriz eta laguntza gehiago emanaz. Zenbat euskarazko film ekoizten dira urtean? Hamar, asko jota? Horrekin nekez elikatu dezakezu plataforma bat. Edo nekez izango da euskarazko eskaintza nahikoa zabala egungo kontsumo ohiturentzako. Pentsa, urtean hamar film ekoizteak esan nahiko luke urtean 20 orduko edukia egotea. Egun gutxi batzuetan eskaintza guztia kontsumitu daiteke lasai asko. Eta Netflix plataforman, ia 6.000 eduki daude.

Euskararen presentzia halako plataforma erraldoi batean hutsaren hurrengoa da kopuru hauetan jarraitzen badugu. Horregatik iruditzen zaigu oso garrantzitsua dela kanpoko eduki arrakastatsuenak euskarara ekartzea, bikoizketa eta azpidazketen bitartez.

**Disneyri egin diozue eskaera hori.**
Ez dugu eskatzen klasiko zaharrak orain bikoizten hastea. Eskatzen duguna da, jadanik bikoiztuta eta azpidatzita dauden filmak euskaraz eskaintzea plataforman. Jadanik egina dago euskarara ekartzeko lan hori, baina ez dira zabaltzen. Diru publikoz urteetan orduak eta orduak euskaratu dira. Teknikoki ez luke lan handirik eskatu beharko eginda dagoena plataformetan zintzilikatzeak. Ez egitearen arrazoi bakarra diskriminazio hutsa da.

Beste gauza bat da eduki guztiak bikoizten hastea. Gure eskaera da gutxienez estreinatzen diren pelikula guztiek euskarazko aukera izatea.

**Hori Katalunian badaukate. Erreferente hartu duzue hainbat kasutan.**
Urte batzuetako abantaila daukate gure aurrean. 2013 urtean hitzarmen bat egin zuten Disney multinazionalarekin eta, ordutik, zinemetan eskaintzen dituzten estreinaldi guztiak katalanez bikoiztuta ere eskaintzen dituzte. Orduan, egin behar izan duten bakarra da pelikula guzti horiek katalogora igotzea. Bazeukaten edukia egina, baina katalogoan soilik gazteleraz jarri zuten. Sinadura bilketari esker lortu dute falta zen urratsa egitea.

**Madrilen, berriz, Ikus-Entzunezkoen Lege Orokorrarekin jira-biran dabiltza. Zer ekar dezake horrek?**
2018ko Europako direktiba bat aplikatzera dator. Besteak beste dio, *streaming* plataformek bere edukien %30 europar proiektuei eskaini behar dietela. Atzeratzen doa Espainiako tramitazioa, baina zirriborroak dioena da, Europako proiektuen eduki horren erdia estatuko edukiak izan behar direla. Badago aukera bat %15 hori zein hizkuntzatan izango den zehazteko. Kataluniako Ikus-Entzunezkoen Kontseiluak emendakin bat egin zion legearen aurre-proiektuari, eskatuz Espainiar Estatuko edukien %15 horren erdia beste hizkuntzetan izateko. Guk bat egiten dugu horrekin.

**EH Bilduk proposatu du Ikus-Entzunezkoen Kontseilua sortzea. Hau ere eragile bat litzateke prozesu horretan.**
[Elkarrizketa hau egin eta gero Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du ez duela kontseilurik sortuko]. Europan ia herrialde guztietan daukate kontseiluren bat, eta Espainiar Estatuan Andaluzian eta Katalunian badago. Ikus-entzunezkoen komunikabideen gardentasuna eta aniztasuna zaintzeaz gain, haurren babeserako legeak, publizitatearen arauketa eta hizkuntzari loturiko komunikabideen arauketaz arduratuko litzateke. Kontseilu bat eduki beharko genuke euskaraz, administrazioetan. ●

BABESLETZA:

19,5 €

%100 kotoi organikoa

# Kolore berriak!

**Bost kolore aukeran:**
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

## Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin, nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

**Erosteko: argia.eus/azoka 943 37 15 45**

**Agroekologia mugimendua**
eta ARGIA elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko **ekarpena egingo diozu agroekologia mugimenduari** eta beste hainbestekoa ARGIAri.

EUROPAKO NEKAZARITZA POLITIKA BATERATUA

# Industrialak satisfos eta laborari ttipiak kezkaturik utzi ditu adosturiko NPBak

Eztabaida gogorren ondotik, ekainaren 25ean adostu dute 2023-2027 urteentzako Europako Nekazaritza Politika Bateratua, Europako Parlamentuaren, Laborantza Ministroen Kontseiluaren eta Europako Batzordearen artean. Klima larrialdiari aurre egiteko edo behintzat hau mugatzeko tresna izatea espero zuten anitzek, baina azkenean ez da horrelakoa izanen. Orain arteko logika berarekin segituko du Europar Batasunak, nagusiki nekazaritza industriala lagunduz, eta ingurumenaren eta laborarien alde dihoan laborantza herrikoia bigarren mailan utziz, sostengu eskasegiarekin.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Krisi aitzineko testu bat erditu digute hiru urteko eztabaidatik, orain arteko Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) azal eta mami berekin. COVID-19 osagarri krisitik eta agerian utzi dizkigun nekazaritza dependentzietatik irakaspenik ez dute atera 27 estatuek. Zer arrakala alimalea *Green Deal* eta biharko NPBaren artean! Herritarrek hautaturiko instantzia bakarra den Parlamentuak pisu gutxi izan du erabakian", irakurri dezakegu laborantza herrikoiaren alde dabilen Confédération Paysanne sindikatuak plazaraturiko agirian. 2023-2027 urteetarako NPBaren norabideak, helburuak eta bideak finkatzen dituen erreformaz ari da, Europako Laborantza Ministroen Kontseiluak, Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak ekainaren 25ean onartutakoaz.

Akordioa ez zen aitzinetik irabazia, Parlamentuaren eta Ministroen Kontseiluaren artean desadostasunak zirelako nagusi. Batak –Europako Parlamentuak– ingurumenaren errespetu handiagoan eta klima larrialdia mugatzeko helburuarekin osatu nahi zuen erreforma, eta besteak –Laborantza Ministroen Kontseiluak– ez zuen orain arteko logika industrialarekin mozteko gogo eta ausardia nahiko erakusten.

Hitzak berdez tindatzea erraza izanki, teorian denak dira ados errateko klima larrialdia mugatu beharra dela eta ingurumenaren errespetuan doan proiektu politiko batekin aitzina egin behar duela Europar Batasunak. Baina, hitzetatik haratago joan behar denean, hots, helburua betetzeko erabaki politikoak finkatzerakoan, uzkurdura da nagusi, berez, helburuak neurri ausartak eta aldaketak eskatzen dituelako. NPBaren erreformari dagokionez horretan zihoan soka-tira: edo orain artekoa baino ekologikoagoa izanen den laborantza proiektu bat marrazten zuten –sozialki ere, zuzenagoa izanen litzatekeena–, edo nagusiki nekazaritza industriala sostengatuko duen politika bateratuarekin segitzen zuten.

Iazko urrian adostu zuten NPBaren erreforma Europako 27 laborantza ministroek, zazpi urterako 336 bilioi euroko aurrekontuarekin, baina Europako Parlamentuarekin helburuak eta neurriak ezin adostuta zebiltzan. Hainbeste, zein eta maiatzaren 28an moztu zituzten negoziazioak, gainditu ezinezko puntuek horretara beharturik: "Funtsezko gai anitz ebatzi gabe ditugu oraindik, elkarrizketen atzeratzea erabaki dugu". 27 estatuek esku artean dute 2019an aurkezturiko *Green Deal* edo Itun Berdea, zeinetan 2050erako karbono-neutralitatea lortzeko konpromisoa harturik duten. *Green Deal*-a *greenwashing*-a ["garbiketa berdea"] ez bihurtzeko gisan, bai ala bai NPBan txertatu behar dute helburua, hasteko, Europar Batasunaren berotegi efektuko gas isurketen %12 laborantzatik datorrelako. Hilabete baten buruan berriz bildurik, ados jarri dira azkenean.

Benoit Biteau eurodiputatu ekologistak honela baloratzen du akordioa: "Erreforma bidegabea, klimatikoki kaltegarria eta biodibertsitaterako arriskutsua" . Hain zuzen, testuak ez du laborantza eredu aldaketara behartzen, oraindik ere segitzen du nagusiki sistema industriala sostengatzen. 1957an abiatu zuten nekazaritzarentzako politika bateratua, garaiko erronkei erantzuteko gisan eredu produktibista bultzatuz, eta erreformaz erreforma, norabidez ez dute aldatu, alderantziz, logika intentsiboa akuilatu eta indartu besterik ez dute egin.

ELB

**MOBILIZAZIOA BAIONAN.** Bestelako NPB baten alde elkartu ziren suprefetura aitzinean, ELB sindikatuak eta BLE elkarteak deiturik.

2021-2027 urteetarako aurrekontuko %75 –258 bilioi euro– dira zuzenean laborariei banatuko, eta banaketa bideratzeko irizpideei dagokionez, aldaketa drastikorik ez da gertatu. Orain arte bezala lur edo azienda kantitatearen arabera banatuko dituzte dirulaguntzak: zenbat eta handiagoa izan, orduan eta dirulaguntza gehiago jasoko dira Europatik.

Horra hemen puntuz puntu 2027 arte adosturiko politikaren nondik-norakoak:

## LOGIKA BEREAN SEGITUZ: TAMAINAREN ARABERA JOKATUZ

"Zalantzan jarri behar da hektareako laguntzaren printzipioa (NPBren baitan, etxalde batek zenbat eta hektarea gehiago izan, orduan eta laguntza handiagoa jasotzen du) –dio Aurélie Catallo Bestelako NPB Baten Alde plataformako kideak–. Zeren izenean handitasunak ordainketa handiagoak justifikatuko lituzke? Jakinik ikerketek argi uzten digutela etxaldea zenbat eta handiagoa izan orduan eta kaltegarriagoa dela ingurumenarentzat, eta orduan eta lanpostu gutxiago sortzen dituela hektareako". Kontua da adosturiko testuari segi, logika honekin ez duela moztu Europar Batasunak.

Badira ordea, berritasun zenbait, bestelako eredua sostengatzeko asmoz hartutakoak, baina ez dira nagusitzen.

## BERRITASUNA: EKO-ERREGIMENAK

Ingurumenaren errespetuan dabiltzan laborariei banaturiko primak dira "eko-erregimenak", erreforma honek dakarren berritasun nagusia. Honi buruz izan dituzte eztabaidarik beroenak, zuzenean banatu laguntzetan eko-erregimenei bideraturiko proportzioa zenbatekoa izan behar zen ezin adostuz zebiltzala. Gutienez %30 ordezkatzea eskatzen zuten eurodiputatuek; estatuek aldiz %25eko muga eskatzen zuten, bi urteko trantsizio-epearekin, zeinetan ez liratekeen proportzio hau errespetatzera behartuak izanen. Estatuen nahiari segi finkatu dute neurria: aurrekontuaren %25 bideratuko zaie eko-erregimenei –horretarako eskaerarik ez baldin bada, %20 2023 eta 2024 urteetan–.

Baina zenbat bideratzen den bezain garrantzitsua da ikustea zertara bideratzen den... Laborantza ekologikoan dabiltzanek kezka adierazi zuten, testuaren arabera "ingurumenarentzako balio handiko" proiektuak direlako sostengatuko. Irizpide malgu batzuei segi banatuko dira eta ekoizpen ekologikoan ez direnek ere jasotzen ahalko dituzte, beste behin ere laguntza gutxien duena sostengu gutxirekin utziz. Adibidez, Frantziako Laborantza ministroak jakitera eman zuen Frantziako Estatuko laborarien %80-%85ak eskuratzen ahalko zituela eko-erregimenak. Eredu herrikoian eta iraunkorrean dabiltzanak Frantzian ez dira hainbeste... hori horrela, argi gelditzen da eredu intentsiboan dabiltzanei ere banatuko liratezkeela.

## LANDA-ERROTAZIOAK

Eztabaidari hurbiletik begiratuz gero, ohartzen gara ingurumenaren alde doazen neurriek dutela erresistentzia gehien sortu. Hauen artean dugu erreformak eskatzen duen landa-errotazioena edo bioaniztasuna laguntzeko asmoz landa batzuk landu gabe uzteko betebeharrarena. Laborantzako lurren %4 eta %7 artean landu gabe atxiki beharko dituzte (salbuespenak izanki hamar hektarea baino gutxiagoko baserrientzat).

## BIGARREN ZUTABEAN %35 INGURUMENAREN ALDE

Bitan banatua da NPBa: batetik "lehen zutabea" laborariei bideratu dirulaguntzei dagokiona, eta bestetik, "bigarren zutabea" landa eremuaren garapenaren alde doana. Bigarren honi bideratua zaio aurrekontuaren %25, eta adosturiko testuan agertzen da dirutza honen %35 ingurumenaren aldeko egitasmoei bideratu beharko zaiela.

## ÑABARDURA: "BIDERATU" BEHARREAN, "BEGIRATU"

*Green Deal* edo Itun Berdea gauzatu ahal izateko tresna garrantzitsua izan behar luke NPBak. Tartean, itunean zerrendaturiko hainbat helburu sektore honi buruzkoak direlako: pestizidak eta antibiotikak 2030erako %50az gutxitzea eta ongailuak %20az, baita laborantza lurren %25 eredu biologikora bideratzea ere. Kontua da, ez dutela erronka hauek gainditzeko determinazioarekin osatu erreforma. Estatuen nekazaritza politikak helburu horien araberakoak ote diren "begiratu" beharko du Europar Batasunak, ezertara "behartu" gabe.

"Araudi-esparrua eta ingurumenaren alde doazen arauak ahulegiak izateak eta ingurumenari dagokionez helburu kuantitatiborik ez izateak dakar zuzeneko dirulaguntzen hiru laurdenak eredu intentsibora banatuko direla, inolako baldintza ekologikorik galdetu gabe", Ingurumenaren Europako Bulegoa izeneko elkarteak gaitzesten duenez. Hots, orain arteko tendentziarekin segitzea dakar erreformak: "Akordio honek *statu quo* egoera atxikitzen du, eredu industrialari bideratu laguntza hondoragarriarekin segitzea dakar. Ez gaituzue engainatuko, *greenwashing*-az ohartzen gara", dio bere aldetik Greenpeacek.

Dirulaguntzen banaketarako irizpideak ez direino kontrako zentzura bideratzen, ez da NPB "berderik" sortuko. "Laborantza industrial berdea" esamoldea oximoron bat delako... Baina ingurumenaz gain, sektorearen geroa ere da jokoan, laborari eta etxaldeak modu kezkagarrian desagertuz doazelako: hamar urtez 4,2 milioi etxalde ttipi desagertu dira Europan, zehazkiago baserrien %25a. Beste behin ere, erreforma honetan ez da arazo hau serioski hartua izan, handienak dituelako sostengatzen.

## BATASUNA AHULDUZ, ESTATUEI ERABAKIMEN GEROZ ETA GEHIAGO

Onerako ala txarrerako, 27 estatuek geroz eta erabakimen gehiago dute, eta nekazaritzarentzako politika bateratuak geroz eta gutxiago du batasunetik. Nahiz eta helburu orokorrak Europa mailan adostu, ondotik hauen gauzapenerako bideak finkatzeko erabakimena geroz eta gehiago estatuen esku uzten du Europako Batzarrak. Adibidez, eko-erregimenei buruzko irizpideak estatuka finkatuko dituzte. Ikusteke dugu beraz orain estatuka nola bideratuko duten NPBa. ●

DANI BLANCO

# "Finkatu koadroak ez du orain artekoa biziki aldatuko"

Jean-Paul Duhalde (ELBko kidea)

**NPBaren erreforma honi buruzko ELBren irakurketa zein da?**
Adostasun honekin koadroa markatu dute eta orain estatuei dagokie norabidea zehaztea. Maleruski, finkatu koadroak ez du orain artekoa biziki aldatuko. Egundaino erran duguna da ez dela bidezko diru banaketarik: bakar batzuengana doa dirulaguntzen alimaleko zama. Frantzian adibidez laguntzen %80a laborarien %20ak du errezibitzen. Ongi izanen zen Europak koadro justuago bat eman balu, dirulaguntzak hobeki banatuz, baina ez da halakorik gertatu. NPBak hiru ardatzetan beharko zuen hobetu: sozialki, laborantza biziarazten eta laborantzaz bizi direnak gehiago eta hobeki kontutan hartu; ekonomikoki, bestelako eredu bat garatu; eta bistan da, ingurumenari dagokionez ekologikoagoa bihurtu. Hiru ardatz horietan ez da aldaketarik sendi, kasik erran daiteke orain artekoaren jarraipena dela.

**Bakar horiek handienak izanki.**
Zenbat eta lur eta kabala gehiago ukan, orduan eta laguntza gehiago duzu. Hori horrela, NPB "berdeagorik" ez da posible. Laguntzak beste gisaz banatuak balira, anitz gauza egiten ahal lirateke! Europan, laborantza saila biziki sostengatua da, baina maleruski arrunt gaizki lagundua da. Horregatik ditugu gaur bizi ditugun kalte guztiak. Baina ez dezagun gorde: hau nahikeria politiko bat da.

**Lobbyak ere hor direlako.**
Bistan da. NPBaren lehen irabazlea agroindustria dela onarturik dute aspaldian begirale anitzek.

**Orduan orain estatuka jokatuko da afera.**
Laborantza Ministerioan presioa eginen dugu, lehenik eta behin etxalde ttipientzat laguntza hobeak lortzeko. "Ingurumenarentzat balio handiko" ziurtagiria ere hor da. Izen biziki ederra du, hori bai, baina maleruski edozer gauza sar dezakete barnean. Izuarazten gaitu, biziki kaltegarria izan daitekeelako eredu biologikoan dabiltzan laborarientzat, baina orokorkiago ingurumenarentzat eta jendarte osoarentzat. ●

# URAREN MUNIZIPALIZAZIOAREN BATAILA AURTEN JOKATZEN DA

Suez multinazionala jabe duen Aquarbe enpresak kudeatzen du ura Urretxun eta Zumarragan. Aurten bukatzen da lizitazioa bi udaletan, eta Onura Publikoa plataforma sortu da uraren kudeaketa publikoa aldarrikatzeko. Ikusi nahi zein kalte dakartzan giza eskubide eta ondasun publiko bat pribatizatzeak?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Uraren kudeaketa pribatizatuta duten Gipuzkoako udalerri bakarrak Zumarraga eta Urretxu dira. Bi udalek Suez multinazionala jabe duen Aquarbe enpresari esleitu zioten uraren herri barruko kudeaketa eta aurten agortzen da lizitazioaren epea, beraz, aurten erabakiko da gainerako herrietan bezala kudeaketa publikorantz aldatzen den, beste lizitazio bat aterako duten edo Aquarberena prorrogatuko den.

Kudeaketa pribatua eraginkorragoa eta merkeagoa denaren mantra barneratu dugun bitartean, Zumarraga eta Urretxuko herritarrek 15 urtean 1.500 euro gehiago ordaindu dute ura Legazpiko herritarrek baino, nahiz eta denek Barrendiolako ur bera edaten duten eta ura bizitzeko ezinbesteko ondasuna eta eskubide unibertsala den.

Tira, prezioaren igoera ikusi, ikusi... ez dute erraza izan ikustea, Aquarbek 2018tik etxeen %48,97ri ez baitie inolako fakturarik bidali. Enpresak hala erabaki zuelako, ez herritarrek; legearen eta kontsumitzaileen eskubideen kontra doana erabat.

Baina... nola iritsi dira egoera horretaraino? Apirilean herritarren aurrean aurkeztu zuten Onura Publikoa plataformako kide den Aritz Elgarrestak erantzun ditu gure galderak.

## KANON TENTAGARRI POZOITSUAK

Zumarragaren kasuan, Aquarbek 2007ko lizitazioa irabazi zuen eta horretarako, udalari 2,5 milioi euroko kanona ordaindu zion. Bistan denez, Aquarbek zerbitzu horretatik irabazi handiak espero zituen. Bidean, ordea, krisi ekonomikoak eta Arcelor itxi izanak Aquarberen aurreikuspenak zapuztu zituen. Horren aurrean, Aquarbek Zumarragako Udalari presio egin izan dio urtez urte, uraren tasak gehiago igotzeko eskatuz. Udaletxeko aktetan islatuta dago multinazionalarengandik udalak jasan duen presioa eta Elgarrestak salatu duenez, "udaletxeko langileek auditoriak eskatu dizkiete Aquarberi tasen igoera hori justifikatzeko, eta ez dituzte jaso". Plataformatik, zera salatu dute: "Udalak enpresa pribatu baten irabaziak babesteko tasak neurrigabe igo ditu". Azken hamabost urte haue-

onura publikoa

**ONURA PUBLIKOA PLATAFORMA.**
Hauek osatzen dute:
Alderdi politikoak: EH Bildu, Elkarrekin Zumarraga, Sortu, Berdeak Legazpi.
Sindikatuak: ELA, LAB, CCOO.
Gizarte eragileak: Koodinadora Feminista, Ernai, Bertso Eskola, KKin Zona, Gaztetxea, Mutamu musika taldeen mugimendua, Geltokiko Jai Batzordea, eta Duintasuna pentsiodunen elkartea.

**PLATAFORMAREN ESKAERAK.**

1. Ura giza-eskubide unibertsala da eta guztion ondarea. Oinarrizko giza eskubideekin ezin da negoziorik egin.
2. Uraren kudeaketak %100 izan behar du publikoa, gertukoa eta parte hartzailea. Munizipalizazioaren aukera hobesten da.
3. Langileen eskubideen eta kalitatezko enplegu publikoaren alde. Aquarbeko langile guztiak, ura kudeatuko duten egitura publiko berrian sartzea berme guztiekin.
4. Tarifikazio justu, sozial eta ekitatiboa. Gehiegikeriak eta espoliorik ez tarifikazioan. Uraren tarifak zerbitzuaren kostua estali behar du, ez enpresa baten irabaziak.
5. Gardentasuna, informazioa eta errespetua. Etxe guztietan egon behar dute fakturek lehenbailehen.

## UR GARESTIA

EAEn metro kubiko ur bakoitza 1,94 euro ordaintzen da. Zumarragan, aldiz, 3 euro (%50 garestiago).

Zumarragatar batek, bizilagun eta kontsumoaren arabera, ura urtegi beretik hartzen duen legazpiar batek baino %25-%80 gehiago ordaintzen du.

Hamabost urteotan zumarragar batek legazpiar batek baino 1.000 euro gehiago ordaindu du ura. Familia batek, berriz, 1.500 euro gehiago.

Zumarragan eta Urretxun uraren kudeaketa Aquarberen esku dago. Zumarragako tarifa Urretxukoa baino %25 garestiagoa da.

tan, Zumarragan ur kontsumoa %21 jaitsi den arren, enpresaren diru sarrerak %32 igo dira. Plataformaren hitzetan, 2016-2018 urte bitartean jada Aquarbek 2,5 milioi euroko irabaziak izan zituen eta beraz, ez du ikusten motiborik tasak hainbeste igotzeko. Horrez gain, plataformak kalkulatu du 15 urteotan milioi bat euro gastatu duela Zumarragako Udalak hoditeriak eta ur azpiegiturak hobetzen: herritarrek uraren fakturan ordaintzen duten dirutik, hau da, herritarren dirutik, egin dira inbertsio hauek eta gehienetan Aquarbe izan da lanak egin dituena eta hortaz, diru hori irabazi duena.

Zumarragako Udalak uraren tasen igoeran ardura handia duela adierazi du Elgarrestak: "Lizitazioa sinatu zuten berak daude egun agintean: alderdi sozialista, eta gainera egun alkatea dena alkate-ordea zen garai horretan". Kanonen joko hau Espainiako Estatuan asko egin dela oroitarazi du, eta modu ezkutu batean herritarren bizkar kredituak hartzea dela, funtsean: "Zumarragako udalak oraintxe bertan 3 milioi euroko kreditua eskatu du. Tentagarria izan daiteke, berriz ere Aquarberengandik diru freskoa jasotzeko. Bere garaian, 2,5 milioi horiekin inbertsio indartsuak egin ziren, baina denon diruarekin, eta giza eskubide bat pribatizatuta". Salatu du ura giza eskubide bat dela eta ezin dela inor urik gabe utzi ordaintzeko beste diru ez duelako.

## MULTINAZIONALEN ESKU UTZI EDO PUBLIFIKATU?

Gertakizunen sekuentziari jarraiki, 2007an Aquarberekin kontratua sinatuta berez udalek ez zuten kudeaketa publiko bat pribatizatu, lehendik ere pribatua baitzen bi herriotan. Elgarrestaren azalpenen arabera, Gipuzkoako beste herriek publifikaziorantz egin duten bidean atzean trabatuta geratu diren bakarrak dira Urretxu eta Zumarraga: 70 eta 80ko hamarkadetan Gipuzkoako udaletxe batzuek uraren kudeaketa munizipalizatuta zuten eta besteei Aguas del Norte enpresak eramaten zien. 90eko hamarkadan lurralde horretako 65 udalek Gipuzkoako Uren Kontsortzioa sortu zuten, tartean Zumarragak eta Urretxuk: Erakunde publikoa da,




**UR FAKTURARIK EZ DUTE JASO HERRITARREN %48,97K.** Jukutria hau erabili zuen Aquarbek 2018an: gutun baten bidez herritarrei jakinarazi zien 30 egunen buruan ez bazuten eskatzen fakturak paperean bidaltzen jarraitzea, ulertuko zutela herritarrak bat egiten zuela inolako fakturarik ez bidaltzeko haien asmoarekin. Eskaera berezia egin ez zutenek, beren faktura ikusteko Bulego Birtualean sartu behar dute. Komunikazio ez garden honen emaitza hauxe izan da:
5.642 kontratu guztira.
Horietatik 87k jasotzen du faktura elektronikoa (%1,54).
1.149k eskatu du PDF posta elektroniko bidez bidaltzea (%20,37).
1.643k eskatu dute paperean bidaltzen jarraitzeko (%29,12).
2.763k ez diote erantzun kanpainari eta ez dute fakturarik jaso (%48,97).
Onura Publikoa plataformak dio ilegala dela fakturarik ez bidaltzea eta neurri legalak hartzea aztertzen ari dela. Argazkian, kudeaketa publikoa duen Legazpiko faktura bat eta Zumarragoa alderatuta.

Aldundiak du partaidetzaren %25 eta Donostialdeko Añarbek eta Txingudiko Mankomunitateek osatzen dute Gipuzkoako enpresa publikoen mapa. Baina erakunde publiko honen kudeaketa pribatua da egun, Gipuzkoako Ura SA/GUSA-k darama, enpresa honek jabea Kontsortzioa bera duen arren.

| AQUARBEK FAKTURATU DUENA | 2007TIK URA IGO DENA |
|---|---|
| 30 (m KUBIKO) 4 pertsona | 32 % |
| 30 (m KUBIKO) 3 pertsona | 56 % |
| 10 (m KUBIKO) 1 pertsona | 83 % |
| 7,5 (m KUBIKO) 1 pertsona | 74 % |
| 15 (m KUBIKO) 2 pertsona | 47 % |

**URAREN IGOERA URTEZ URTE.** Ikus daiteke Zumarragan urak urtez urte izan duen igoera, eta ez dela bera izan kontsumo tarte bakoitzean. 2007tik KPIa %6 igo bada ere, Zumarragan uraren prezioa %12 igo da, bikoitza beraz.

Pixkanaka, udalak kontsortziora sartzen joan ziren, edo bestela munizipalizatu egin zuten zerbitzua. Baina prozesu horretan ez dute aurrera egin Zumarragak eta Urretxuk: Lehen Aguas del Norte zena ondoren Aquagest barruan sartu zen, gero Aquagestek kudeaketa gardentasunarekin zituen arazoen aurpegi garbiketa egiteko hainbat filialetan banatu zen eta horietako bat da Aquarbe, Suez multinazionalarena.

Ura giza eskubidea eta ondasun publikoa izanik, kudeaketak erabat publikoa izan behar duela defendatzen du sindikatu, alderdi politiko eta eragile anitzek osatua den Onura Publikoa plataformak. Baina publifikatzerakoan, badira bi aukera: Gipuzkoako Kontsortzioaren bidez egitea kudeaketa osoa, edo kudeaketaren zati bat munizipalizatzea. Izan ere, mendietako urak gure etxeetako iturrietatik ateratzen diren arte, hainbat fase igarotzen ditu eta horiek bermatzeko lanak bi zatitan daude banatuta: "Altako kudeaketa" deitzen denaz arduratzen da Gipuzkoako Ura Kontsortzioa, hau da, urak jaso, tratatu, depositoetara eraman eta urak araztu eta isurtzeaz. "Bajako kudeaketa" deitzen dena da udalek bide publikotik egin dezaketena (munizipalizatu edo Kontsortzioak zerbitzu hau bere gain hartzea) edo bestela, multinazionalei saldu ahal diotena, eta lan hauen barruan sartzen dira urak kontsumitzaileei helaraztea eta euri uren eta ur zikinen bideratzea herri barruan.

Elgarrestak azaldu du zergatik egiten duen Onura Publikoa plataformak munizipalizazioaren alde: "Kontsortzioa beharrezko ikusten dugu, lurralde kohesioa indartzen duelako: adibidez, eremuz zabala den eta biztanle gutxi dituen herri batek tarifa izugarri garestiak izango lituzke kontsortziorik ez balego. Beraz, herrien arteko oreka bermatzen du Kontsortzioak. Baina bestalde, gauza asko ditu hobetzeko antolakuntzan, egituran, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa izateko edo publifikatzeko. Horren guztiaren aurrean, eta gainera, egun Aquarben lanean ari direnak bertako herritarrak izanik, aukera polita ikusten dugu munizipalizazioaren alde egiteko".

Ohartarazi du ura bezala beste hainbat zerbitzu ere pribatizatuta dituztela udaletan: "90eko hamarkadako olatu pribatizatzailearen ondoren, ea lortzen dugun publifikatzerantz bidea egitea. Bestalde, gure baliabideen burujabetza izatea ere oso garrantzitsua da. Gure baliabideen kontrola galtzen dugunean, multinazional batek nahi duena egin dezake".

## HERRITARREN PRESIORIK EZEAN

Aurten jokatuko da, beraz, giza eskubide bat publifikatu edo multinazionalen esku uztearen arteko dema. Nola daude indar orekak udaletan? Zumarragako Udalean 13 zinegotzietatik 7 dira PSOEkoak eta Urretxuko Udalean 13 zinegotzietatik 7 dira EAJkoak. Onura Publikoa plataforman elkartu dira horiek biak eta PP izan ezik beste alderdi politiko guztiak.

Elgarrestak azaldu duenez, uda baino lehen Urretxuko udalak ez badu ezer erabakitzen, zuzenean bost urterako prorrogatuko da Aquarberekin duen kontratua; eta orduan esleipena aterako litzateke. Zumarragan uda bukaera baino lehen ez bada beste ezer erabakitzen, bost urtera arte prorrogatuko litzateke Aquarberekin dagoen kontratua, baina urtez urte. ●

## "URA GIZA ESKUBIDEA DA ETA INORI EZIN ZAIO UR ZERBITZUA MOZTU, BERAU ORDAINTZEKO DIRURIK EZ DUELAKO"

### PEDRO ARROJO, NAZIO BATUEN ERAKUNDEKO ERRELATORE BEREZIA

Ura giza eskubide moduan ulertu behar dugula esan zuen, munduan 2.000 milioi pertsona daudelarik edateko urik ez dutenak. Pertsona guztiek bizirauteko oinarrizko ur minimo bat bermatuta izan behar dute, oinarrizko eskubide unibertsal bat delako. Ondorioz, inori ezin zaio ur zerbitzua moztu, berau ordaintzerik ez badu ere. Onura Publikoa ekimenari zortea opa zion beraien eskaeretan eta bereziki eskertu zuen plataformaren lana.

**2021/04/22 ZUMARRAGAN, ONURA PUBLIKOAK ANTOLATUTAKO HITZALDIAN**

## AUZO ELKARTEAK TRANTSIZIOAN

# *Borroka demokratiko baten memoria, egungo hiriak ulertzeko*

Trantsizioa deituriko garaiaren hastapenetan, gure hirien konfigurazioan eragile aktibo izan diren herri mugimendu eta talde askoren oinarrian auzo elkarteak zeuden. Borroka demokratiko horren memoria berreskuratzea funtsezkoa da, egun bizi ditugun hiriak ulertzen saiatzeko. Karlos Trenor abokatuarekin hitz egin dugu, herri mugimendu askotan aritua eta Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha elkartearen sortzaileetakoa. Donostiako auzo horretan okupatu zuten Villa Salia etxea 1976ko uztailean.

IPAR-HEGOA FUNDAZIOA ARGIA ARTXIBOA

Egungo hiriak eta beraietan garatzen diren borrokak ulertu ahal izateko, nondik gatozen gogoratzea ezinbestekoa da. Memoria egitea. Auzoetako borrokek, auzo elkarteek eta maila lokalean egindako herrigintzako ekarpenek, gure hiri eta herriak eraldatu zituzten, eta hein handi batean egungo Euskal Herria ere markatzen jarraitzen dute. Borroka demokratiko horren memoria zati txiki bat jaso dugu Karlos Trenorren eskutik, Donostiako Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha auzo elkartean ibilitakoa.

Trenorrek, Frankismoaren azken urteetan, Trantsizio deituriko garaian bizi zen klima oroitarazi digu: "60 eta 70eko hamarkadetan giro politiko berezia zegoen. Erakunde politiko eta sindikalen aurkako errepresioa bortitza zen". 1936ko Gerra bizi izan zuen jendearen beldurra du gogoan, fusilatzeena. Baina, gazte belaunaldi berrien eta nazioarteko mugimendu emantzipatzaileen eraginpean, "lantokietan langileen antolakuntza eta borrokak hauspotu ziren, eta herri zein auzoetan mugimendu asanblearioen hastapenak bizi izan genituen, denborarekin indar handia hartu zutenak".

Garai hartan auzoetako bizi-baldintzak kaskarrak zirela dio Trenorrek: "Ia ez zegoen ekipamendurik: ez zegoen eskolarik, ez osasun-zerbitzurik, ez kirol-instalaziorik ere. Auzoak hirigintza anarkikoan sortu ziren, inolako eskrupulurik gabeko eraikitzaileek bultzaturik, epe motzean onura erraza bilatuz, administrazioaren laguntzarekin". Horregatik, auzo elkarteen hasierako aldarrikapenak hirigintzari oso lotuak zeudela nabarmendu digu abokatuak.

1964an elkarteen inguruko legea onartu zen, *Fraga Legea* gisa ezaguna, eta horren bidez, Frankismoan lehen aldiz, kultur eta auzo elkarteak legeztatu ziren. Legalizazioa lortzeko estatutu formalak idatzi behar zituzten elkarteek, baina praktikan era asanblearioan funtzionatzen zutela nabarmendu du Trenorrek. Horren adibide da Donostiako Egia auzoan sortu zuten Asociación Centro Cultural Recreativo Eguia-Atocha: "Horizontalki funtzionatzen genuen, nahi zuenak parte hartu eta erabaki zezakeen", dio.

Funtsean, auzo elkarte horiek, hobekuntzak bilatzen zituzten auzoetako bizi-baldintzetan. Hori zuten helburu nagusi. "Hirigintzan hobekuntzak borrokatzen genituen, trafikoari loturiko gaietan, etxebizitzan, osasun zerbitzuetan, kultur edo kirol ekipamenduetan...", oroitu du Trenorrek. Egiako Villa Salia etxearen defentsan eman zen borroka testuinguru horretan sartu behar da (ikusi koadroa).

Auzo asanbladetan, ordea, auzoetako problematika zehatzak gainditzen zituzten eztabaidak ere ematen ziren.

**VILLA SALIAREN OKUPAZIOA.** 1976ko uztailean okupatu zuten eraikin abandonatua Donostiako Egiako auzotarrek, auzoko jarduerak aurrera eraman ahal izateko. Halako borroken memoria jaso nahi du Egiako Gordegia egitasmo herrikoiak argazki biltegi baten bidez.
GORDEGIA

Frankismo garaian zein Trantsizioaren hastapenetan, alderdi politikoak ez zeuden oraindik legeztatuak. Ondorioz, ez zegoen espaziorik eztabaida politikoentzako, eta auzo elkarteak bihurtu ziren, hein handi batean, horretarako toki. Adibidez, amnistiaren inguruan jarduten zirela gogoan du Trenorrek. Baina ez soilik solasean: borrokak ere, esparru lokaletik haratago egin ziren, auzoetako arazo zehatzetara mugatu gabe. Errepresioaren aurkako borrokak, elkartasun internazionalistarenak edo energia nuklearraren aurkakoak ere izan zuten beraien lekua auzo elkarteetan. "Aktibismo handia zegoen, eta gazteen parte hartzea masiboa zen, manifestazioetan, asanbladetan, eta pankartak edo propaganda egiten", aldarrikatzen du egiatarrak.

Bazegoen ere auzo elkarteak gutxiesten zituenik, klaseartekoak edo interklasistak zirelako, eta beraz, ez zirelako sistemaren aurkako ardatzean zentratzen, hau da, kapitala *vs* lana gatazkan. Dena den, "frogatu zen borroka horiek osagarri izateko eta elkar elikatzeko gai zirela. Adibidez, auzoetatik langile mugimenduko borrokei elkartasuna adierazten zitzaien, mobilizazioak, erresistentzia kutxak... garatuz". Horren eredu da Martxoaren 3ko gertakariei Donostiako auzo elkarteetatik emandako erantzun indartsua.

## HERENTZIAN GAUR ARTE

Auzo elkarte eta borroka horiek guztiek arrasto sakona utzi dute. Politikoki izan zuten eragina azpimarratzekoa da: politizazio eta kontzientziazio esparru izan ziren, oinarrizko militantzian trebatzeko tokia, euskal identitatea zein klase kontzientzia eta harrotasuna garatzeko espazioa. Hori gutxi balitz, antolakuntza zein borroka molde berriak frogatzeko ere balio izan zuten. Azken

TALLERES
MITXELENA
S.COOP.

Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

# VILLA SALIA ETXEA, 45 URTE

Villa Salia izeneko etxea Donostiako Egia auzoan dago. Gizarte Aurreikuspeneko Institutu Nazionalarena (INP) zen eta medikamentu biltegi moduan funtzionatu izan zuen, baina 70eko hamarkada erdialdean abandonaturik zegoen, eta botika iraungiz beteta. Auzoan beharrezko jarduerak aurrera eramateko tokirik ez zegoenez, begiz jo zuten auzokideek etxe hura. 1976ko uztailean, antolatu eta etxea okupatu zuten. Poliziak okupatzaileak kanporatu eta etxea hesiz ixtea lortu zuen.

Urte bete pasata, 1977ko uztailean, INPk etxea saldu behar zuenaren zurrumurrua zabaldu zen. Egoera horren aurrean, berehala elkartu ziren batzarrean auzotarrak eta salmenta hori saihesteko antolatzen hasi. Lehen pausu gisa, batzorde bat osatu eta Donostiako Udalarekin zein INPrekin hitz egitera joan ziren. Udalari eskaera luzatu zioten etxea erosi eta auzoaren esku jar zezan.

Udalaren partetik mugitzeko intentziorik ikusten ez zutenez, uztailaren 14tik aurrera auzoan ekintzak gogortzen joan ziren: batzarra eta manifestazioa egin zituzten egun horretan bertan; 15ean, kontzentrazioa INPren eraikinean, enkantea gerarazi zezaten exijitzeko; 16an, kontzentrazioa gobernu zibilaren aurrean; 19an, batzarra frantziskotarren komentuan. Eta beste batzar bat 22an. Hala ere, INPk partikular bati saldu zion etxea. Egiatarrak sutan zeuden.

Uztailaren 24an, 500 bat lagun udaletxe parean agertu ziren, etxearen salmenta atzera bota zedila eskatzeko eta udalak eros zezala exijitzeko. 26an, bigarren manifestazio bat egin zuten udaletxeraino. Orduan ere 500 bat lagun abiatu ziren Egiatik, baina beste auzoetako jende asko elkartu zitzaien bidean. Hedabideetara ere iritsi zen gaia, hiri guztian bolo-bolo hedatuz. Manifestariek indarka udaletxera sartzea lortu eta udalbatzaren aretoa okupatu zuten.

Biharamunean, INPk enkantea bertan behera utzi zuela zabaldu zuten hedabideek. Auzoko jendea fidatu ez, eta berriz ere udalbatza aretoa okupatzea lortu zuten. Hantxe, beste erremediorik ez zuela, jarduneko alkate gisa ari zen Florencio Muñoz Múgicak –Fernando Otazu kanpoan baitzen–, etxea erosi eta auzoari uzteko konpromisoa sinatu zuen. Eta bete zuen hitzemandakoa: Villa Saliako etxea auzotarren esku utzi zuen udalak.

Orduz geroztik, Villa Saliako etxeak Egiako unean uneko arazo eta premiei erantzuteko espazio gisa funtzionatu du. Bertan izan dira, besteak beste, haurtzaindegia, euskaltegia edo Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxea, auzoko beharren zerbitzura.



EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIAN

El Alcalde en funciones Sr. Florencio Muñoz Múgica, en nombre del Ayuntamiento que se celebrará del Ayuntamiento se compromete a comprar Villa Salia LIBRE de cargas y gravámenes y basado en un documento del Instituto Nacional de Previsión y una vez comprada se pondrá a la disposición del barrio de Egia, cuya Asamblea Popular y comisiones emanadas de dicha Asamblea se hará cargo de ella. En un plazo de UNA SEMANA se convocará un Pleno del Ayuntamiento para terminar dicha gestión.

San Sebastián 27 julio 197

El Alcalde en funciones

**KONPROMISOA.** Argazkian, Donostiako udal agintariak Villa Saliaren aldeko konpromisoa sinatzen. Behean, sinaturiko agiria. GORDEGIA

finean, auzoetan borroka egiteak, sistema politikoak demokratizaziorantz tentsionatzen ditu, auzoetako biztanleak eskubidedun "hiritar" gisa proiektatzen baititu, eskubide politikoak hedatuz. Auzo elkarteak horren isla organizatiboa izan ziren, sistemak bazterrean uzten zituen sektore sozialen –langilegoaren...– parte-hartze politikoa bultzatzeko tresna bihurtu baitziren.

Ikuspegi urbanistikotik ere eraldaketa nabariak eragin zituzten, herentzian jaso ditugunak. Horiei esker, auzoek oro har onargarria den ekipamendu-maila lortu baitute, Trenorrek gogorarazi digun bezala: ikastolak, kiroldegiak, kultur etxeak edo auzo elkarteak.

Gaur egun errealitate soziala, eta bereziki auzoak, asko aldatu direla bistakoa da, ekipamenduek ez dute "zerikusirik" Trantsizio garaikoekin. Baina abokatuak argi du erronka berriak azaleratu direla: "Etxebizitzarena, gentrifikazioarena, helduen egoera... Hurrengo belaunaldiek arazo horiei erantzuna eman beharko diete, eta asmatuko dituzte horri begira antolatzeko eta borrokatzeko beste modu batzuk". ●

# Konkistatzaileak zergatik ez ziren gaixotu?

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA



Guanahani uhartea (Bahamak), 1492. Kolonen espedizioak "Mundu Berria" lehenengoz zapaldu zuenean, gero Amerika esango zitzaion kontinentean 60 milioi pertsona bizi ziren, gutxi gorabehera. Handik ehun urtera sei milioi ingurukoa zen biztanleria. Populazioak hain nabarmen behera egitea eragin zuten arma isilak baztanga, elgorria, izurri bubonikoa, difteria, tifusa... izan ziren. Bertakoek ez zuten ordura arte gaixotasun horiekin kontakturik izan eta, beraz, ez zuten horien aurkako immunitaterik garatu. Baina, orduan, zergatik ez zen berdin gertatu europar konkistatzaileekin? Ez al zuten topatu beraientzat berria zen gaixotasun hilgarririk?

Erantzunaren bila atzera joan behar da, Neolitora. Iraultza Neolitikoan, komunitate biltzaile eta ehiztariak zirenak ekoizle bihurtu ziren, nekazaritzan eta abeltzaintzan jardunez. Nomadak ziren taldeak sedentarizatu egin ziren eta populazioak gora egin zuen. Dentsitate handiko giza talde egonkorrak pagotxa ziren birus eta germenentzat. Non aukeratua zutenez, ez zioten zertan ostalari bakarrari eutsi eta beste batzuen bila joateko aukera garatu zuten; gaixotasun infekziosoak askoz kutsakorragoak eta birulentoagoak ziren gizarte berrian.

Jakina, hori guztia Amerikan ere gertatu zen, baina Eurasian zoonosiak ozeanoaz bestaldean baino askoz eragin handiagoa izan zuen. Ugaztun handiak etxekotu zituzten, giza dentsitate handiari animalia dentsitatea erantsiz. Hala, gizakiontzat hilgarrienak izan diren gaixotasun kutsakorrak animalien gaixotasunetatik eboluzionatu zuten: baztanga, gripea, tuberkulosia, malaria, izurria, elgorria eta kolera dira gaixotasun horiek eta behi, txerri eta ardien gaixotasunetatik eboluzionatu zuten nagusiki.

Amerikan, duela 13.000 urteko azken glaziazioan, ugaztun handien espezie asko galdu ziren eta gerora, gizakiek lau animalia espezie besterik ez zituzten etxekotuko: indioilarra, llama, akuria eta ahatea; eta Eurasian baino kopuru askoz txikiagoan gainera. Horregatik, konkistatzaile europarrak iritsi zirenean, gaixotasun eurasiar bortitzak zabaldu zituzten, baina halakorik ez zuten zain.

Zer gertatuko zen Amerikan ere gaixotasun kutsakorrak topatu izan balituzte? Konkista eta kolonizazioa geldiaraziko ote zituen horrek? Afrikaren adibideari erreparatzen badiogu, ez. Afrika tropikalean ere baziren halako gaixotasunak, nagusiki sukar horia, kolonizatzaile europarrengan eragin handia izan zutenak. Horrek prozesua mantsotzea eragin zuen gehienez ere, baina, dakigunez, ez zuen geldiarazi. ●

SABARVR

# Ponpeia txiki bat Veronan

Veronako (Italia) Astra zinema-areto zaharrean berritze lanak egiten ari zirela, II. mendeko erromatar domus baten arrastoak topatu dituzte. Luxuzko bizitoki pribatua zela diote arkeologoek, zementuzko zoruan berokuntza sistema zeukana eta freskoz apaindua. Eraikinaren estalkia egurrezkoa zen eta sute batean suntsituta geratu zela ondorioztatu dute ikerlariek. Vesubioren errautsek Ponpeiako arrastoak gorde zituzten moduan, Veronako etxe horren hormetako margolanak sutearen errautsetan bikain kontserbatu dira. Horregatik diote arduradunek "Ponpeia txiki bat" aurkitu dutela. ●

ELIKAGUNEA

Esperientzien kutxa

# Egunerokoa bertakoa jatea denean

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Irudikatzen al dugu herri bat, saskia hartuta erosketetara ateratzean, eskutan hartutako guztia bertakoa bagenu, etiketari begiratu edo saltzaileari galdezka ibili beharrik gabe? Herri osoa ez, baina plaza bada horrelakoa Azpeitian. Baserritarren azokaren erdian kokatuta, Elikaguneak bertako jeneroa soilik saltzen du: haragi, fruta, barazki, esneki, zereal... eta jateko prest dauden platerak. Ehundik gora ekoizleri erosten diete, gehienei zuzenean, eta erosketa zerbitzua eskaintzen diete herriko ikastetxe, haurreskola eta zahar-etxeko jangelei. Pozik dira, haien sorrerako helburuan urratsak ematen ari direlako: landa eremua bizirik izateko, ekoizleen bizia bideragarri izatea. Elikaguneak bertako produktuen kontsumoa handitzea lortu du. Hainbeste, ezen Azpeitian produktu berriak ekoizteari ekin dioten hainbat baserritarrek, herritarren eskaerak bultzatuta. Eta Nafarroatik ekarri behar baitituzte produktu asko, bailarako baserritarrenak agortuta.

## GUZTIA EUSKAL HERRIKOA

Dendan aurkituko duzun guztia bertakoa dela. Horra Elikagunearen bereizgarria. Baina zeri esan "bertako"? Azpeitia erdigunetzat hartuta, 150 kilometroko erradioan ekoiztutakoa definitu zuten bertakotzat herriko eragileek, Udalaren ekimenez Azoka plaza eraberritzeko prozesuan parte hartu eta Elikagunea dendaren ideia landu zutenean. Dendaren eguneroko martxa Artxara kooperatibak darama, eta eragileek jarritako 150 kilometroko erradio horren barruan, Euskal Herrira murriztea erabaki zuten. "Kooperatiban marra gorria argi izatea beharrezko ikusten genuen, bestela, proiektua desitxuratu egingo zelako. Kanpoko produktuak eskainiz gero, non dago muga?".

Lehengai bakarreko produktuetan Euskal Herrian ekoiztutakoa izan behar du Elikagunean saltzeko, eta elaboratutako produktuen kasuan, gutxienez lehengaien %50ak izan behar du Euskal Herrikoa. "Adibidez, marmelada baten kasuan, batzuetan %45 azukrea izan daiteke (kanpoko produktua), baina marmelada hori egiteko erabilitako fruitu edo barazkiak, Euskal Herrikoa izan beharko luke".

Horregatik, Elikagunean inoiz ez dugu aurkituko laranjarik, ez platanorik, ez txokolaterik, ez kaferik, ez azukrerik... denda lehen aldiz zabaldu zuten garaian jende askok galdetzen zien gure etxeetan egunerokoak diren produktu horiez, baina otsail honetan bete ditu hiru urte Elikaguneak, eta kideek azaldu digutenez, "jendeak jada ohitura hartua du, badaki zer den bertakoa eta zer ez, eta ez dute eskatzen bertakoa ez dena". Alderantziz ere maiz gertatzen dela azaldu dute: jendea harritu egiten dela Euskal Herrian zenbat gauza ekoizten den ikusita: "Bertakoa saltzen omen duzue, baina arroza badaukazue? Galdetzen digute eta guk erantzun: bai, arroza Nafarroan ekoizten da". Eguneroko erosketaren bidez heziketan eta jakintzan eragiten ari da Elikagunea.

Hiru urteotan Artxara kooperatibaren zenbakiek ere adierazten dute proiektuaren arrakasta: hiru langile hasi ziren eta egun sei langile bazkide dira, zazpigarren langile bat ere ari da eta bazkide kontsumitzaileak diren 300dik gora etxe biltzen ditu. Bazkideak baditu bere abantailak: deskontuak, ikastaroetan parte hartzeko lehentasuna, urteko batzarrean parte hartzeko aukera...

## HIRU GUNE ETA HAMAIKA EKIMEN

Dendak hiru gune ditu: harategia, denetariko produktuak dituen denda (kontserba, barazki, zereal, esneki...) eta sukaldea. Sukaldean, bertako produktuekin egindako 5-6 plater eskaintzen dituzte egunero, etxera eramateko. Eta enkarguz ere prestatzen dituzte jakiak. Bertan antolatu izan dituzten pintxo pote tematikoek eta ikastaroek arrakasta handia izan zutela diote, "beti saiatzen baikara herriko eragileekin elkarlanean aritzen. Uste dugu jaso dugun erantzun ona horregatik ere badela". ●

**ELIKAGUNEA**
**elikagunea.eus**

**Zer egiten du:** Bertako produktuen topagunea. Saltokia, horniketa unitatea, tailerrak, ikastaroak, dastaketak....

**Langile eta bazkideak:** 6 langile bazkide eta langile 1.

**Noiz sortua:** 2018an.

**Egoitza:** Azpeitian.

**Harremanetarako:** info@elikagunea.eus

OLATUKOOPEN SARETZE EGUNA

# Sare hau harrapatuta geratzeko modukoa da

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ekainaren 25ean ospatu da Olatukoop ekonomia sozial eraldatzailearen sareak urtero antolatzen duen Saretze Eguna. Laudioko Aiaraldea Ekintzen Faktoriak bildu ditu aurten gonbidatu guztiak. 750 metro koadroko espazio industrial berritua ezagutzeko aukera izan dute bertan bildutako denek, egunari hasiera emateko. Olatukoopeko kide berrien aurkezpena egiteko, lehendik daudenen sentsazioak eta taldearen norabideaz hitz egiteko tartea izan dute espresuki horretarako antolatutako egitarauan, eta umoreak eman dio amaierako gozo puntua.

Faktoriak ateak ireki zituela hilabete pasatxo denean antolatu dute Saretze Egun hau. Ezertan hasi aurretik, lekuak berak txunditu ditu Olatukoopeko kide diren proiektu txiki bakoitzeko kideak. Egurrez egokitutako txokoak erakutsi dizkiete Faktoriako lagunek: ekitaldi jendetsuenetarako espazioa, txikiagoetarako atondutako aretoak, otorduak eskaini ahal izateko sukaldea, bertara lekualdatu diren Aiaraldeako kooperatiba, elkarte edo taldeen bulegoak... azken urteetan antzeko bilkuretan modan jarri diren ezagutza jolasen aldean, ez al da jardunaldi batzuen hastapen hau natural eta aberasgarriagoa?

## AURKEZPENAK ETA ESPERIENTZIAK

Ongi etorria egin zaie azken urtean Olatukoopera gehitu diren kide berriei eta aukera ireki zaie beren buruak eta proiektuak aurkezteko. Lehendik dauden kideek hartu dute hitza gero, eskatu baitzaie azaltzeko nola ikusten dituzten beren proiektuak, zer den Olatukoopek ematen diena... Positiboa izan da erantzuna. Gustura daude sarearen babesarekin. Proiektu txikiak dira gehienak eta bakarrik oso irla txiki ikus daitezkeen arren, sare honek irla batetik besterako bideak ireki eta sendoago sentiarazten ditu.

## NORA JOAN NAHI DUGU?

Hitz potoloegietan sartu gabe, baina Olatukoopen plan estrategikoaz jardun dira. Gako nagusiak aipatu dituzte, etorkizunera begirako helburuak. Zer mundu nahiko luketen amestu eta horra bidean hurrengo pausua zein den diseinatu, hankak lurrean izaten saiatuz.

Elkarrekin Faktoriako lagunek prestatutako bazkari goxoa dastatu ostean, antzerkiarekin eman diote amaiera egunari. Umoretik. Ezjakintasunez eta zalantzaz beteta iritsi diren azken hilabete luze hauen aurrean ospatu dute bizitza. Bizi direla, aurrera begira daudela eta sare baten babesa dutela.

Gora kopak! ●

# MAITA-BELARRAK HARRAPATUKO ZAITU

**JAKOBA ERREKONDO**
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Laharraren ezkontzarena azaldu nuen hemen aspaldi. Aiako Etxeta baserriko Inaxio zenak kontatzen zuen bere grazia eta piper bereziarekin. Laharra (*Rubus fruticosus*) bakarrik sentitzen omen zen eta inguruko landareei ezkontzeko baimena eskatu zien. Haiek ukatu. Lahar andereak bazekien ukoaren arrazoia: zurtoin batean zutitzen ziren beste landareek laharra, sasia izaki, leinu apalagokoa, azpikoa, mendekoa bezala zuten. Eta laharrak mendekua bere egin zuen betiko; honela erantzun zien: nire aldamenean igarotzen den guztiari heldu egingo diot. Eta arantza oker zorrotzez jantzi zen. Arantzekin aldamenean harrapatzen duen edozein landareren gainera igoko da, azpian hartuko du. Eta guk? Argi laharra madarikatu; arantzarekin heltzen dizunean beretzako nahi zaitu, ezkontidetzat hartu zaitu, maite zaitu.

Maite gaituen landare ugari dago. Benetan maite gaituzte, hau da, gure maitasunaren zentzurik zorrotzenean: behar gaituztenean maite gaituzte eta gero hor konpon Marianton! Bere haziak zabaldu ditzagun, kakotxoen bidez fruituak eransten dizkigute. Maita-belar, maitebelar eta baten batek baita maitasun-belar ere esaten diete landare bati baino gehiagori. Horrek gure izendegiari eta izandegiari nahasmen handia erantsi dio, lapatu edo tinkatu dio. Nahasmenari eutsiko diot...

Animalion ilean edo arropan lapatzen da, adibidez lapa-belarra (*Arctium lappa*). Fruitua kako txikiz janzten du guk batetik bestera heda dezagun. Maita-belarra esaten zaio. Bere eraginkortasunaz jabetzeko, pentsa: belkroaren sorreran dago kakotza hori. Izen zientifikoko *lappa* horren jatorria grekoko *lambanô* da,

kakotu edo lapatu esan nahi du. Horren izenak eta lapaitzenak (*Rumex spp.*) maiz nahasten dira: lapaitza eta lapa-belar berak, lapatina, uztai-belar, uztaua... Baina horri inork ez dio maita-belarra esaten.

Maita-belar ezagunena baratzeetan izaten dugu, ziabelar latza (*Galium aparine*). Maita-belar bezalaxe "lapaitza" ere esaten zaiola jaso zuen Pedro Antonio Añibarro areatzarrak 1800 urte inguruan osatutako *Voces Bascongadas* liburuan. Nire ustez, nahaste beraren ondorio da izen hori. Maita-belarra bai, bada; fruituetan soilik ez, baizik eta landare osoan dituen kakoekin helduko dizu; baratzezainek ezaguna izango dute. Belar xumea da, baina maitagarria. Gazteleraz "*amor de hortelano*" esaten diote; frantsesez "*gaillet accrochant*" eta "*herbe collante*". Izen zientifikoko aparine grekoko *απαίρω* hitzetik dator eta "harrapatzen duena" dio.

Maurice Harriet haltsuarrak XIX. mendearen amaiera aldeko Euskara-frantsesa hiztegia eskuizkribuan maita-belar izenarekin jaso zuen *Reseda odorata* ezaguna, usain ederreko lore zuriak ematen dituen sendabelarra eta lurrinetarako gai dena, horika-belarraren *Reseda luteola* eta herezearen *Reseda lutea* generokoa. Beste bat saltsarako...

Nork maite gaituen eta nork ez jakitea komeni al zaigu? Belarren artean bada ere. Saltsa argitzeko maita-edaria edan dezagun, belar sendagarriekin egindakoa. ●

AHALEN LURRAK

# AGROEKOLOGIA ETA ALOR SOZIALA UZTARTZEN DITUEN PROIEKTUA AMIKUZEN

**GARAZI ZABALETA**
@TIRIKITRANN

2015ean iritsi ziren Christian Varin bretainiarra eta Odile Fabrègue marseillarra Amikuzeko Amendüze-Unaso udalerrira. Baziren urte pare bat haien bizi-proiektua martxan jartzeko toki bila ari zirela bueltaka; Belgikan, Frantzian... hara non, Euskal Herriko txoko horrekin maitemindu eta bertan gelditzea erabaki zuten azkenean. Marine Jaunarena Ahalen Lurrak etxaldean aritu da lanean azken hilabeteotan eta berak eman dizkigu proiektuaren inguruko azalpenak. "Bost hektarea dituzte, bertara iritsi zirenean guztiz utzita eta zikinak zeudenak", dio. Urteotako lanari esker, baina, ingurua biziberritzea lortu dute kideek, eta haien produktuak Donapaleuko azokan saltzen dituzte orain.

## ERRETIRATU? EZTA PENTSATU ERE!

Kasu berezia da Ahalen Lurrak proiektuko kideena, izan ere, Fabrègue erretiratua dago, eta Varinek bi urteren buruan jasoko du erretreta. Bizitzako momentu horretan erabaki dute, ordea, etxaldea eta elkartea martxan jartzea. "Erotuta gaudela? Bai! Errebelde xamarrak garela? Zergatik ez?", aurkezten dute haien burua, umorez, proiektuaren webgunean. Varinek bazuen harremana lurrarekin lehenago, 30 urtez behiak izan baitzituen. Fabrèguek, berriz, baratzegintza beti arlo sozialari begira landu du. Etxaldeko lanak ere bi alor horietan banatu dituzte.

Agroekologiaren eredua zabaltzeko asmoz, tailer eta formakuntzak antolatzen dituzte etxaldean, eta instalatzeko gogoa duten boluntarioak ere jasotzen dituzte. *Fermes d'Avenir* —Etorkizuneko Etxaldeak— proiektuaren parte ere badira, eta bertako Compagnonnage programan parte hartzen dute. "Laborantzan instalatzeko gogoa duen frantziar batek eta errefuxiatu batek osatutako hiru bikote jasotzen dituzte etxaldean, bikote bakoitza bi hilabetez", dio Jaunarenak. Helburu bikoitza du programak: errefuxiatuen gizarteratzea laguntzea, eta aldi berean, bi boluntarioak agroekologian formatzea.

## ETXALDEA SISTEMA OSOA DELA ULERTUTA

Sistema zirkular bezala ulertzen dute agroekologia proiektuko kideek, eta horrela antolatzen dituzte etxaldeko elementuak: baratzea, fruitu-arbolak, basoa, animaliak, landare jangarriak... "Esaterako, mintegi bat dute martxan landare ttipiak ateratzeko, eta negutegi horretan arditegia ere badute. Helburua da negutegia animaliek berotzea, kanpoko energia iturriak erabili beharrean", dio Jaunarenak. Modu berean, ur putzuak ere sortu zituzten baratzearen goiko partean, eta tutuen bidez ura baratzera jausten da, mantxo-mantxo ureztatuz eta euri ura aprobetxatuz.

"Azkenean, agroekologiaren oinarria sistema bere osotasunean pentsatzea da, etxaldean edozer sartzen dela, beti begiratzea zein leku hartzen duen eta zein eragin duen. Deus ez da kasualitatez gertatzen, elementu guztiak erlazioan dira", gehitu du. Erdi-kasualitatez gertatu dena, Fabrèguek osatutako antzinako tomate barietateen bilduma da: haren anaiak hasi zuen bilduma eta berak eman dio orain jarraipena, eta honezkero 120 ale baino gehiago ditu. "Bakoitzetik bi landatzen ditu urtero, haziak berriz baliatzeko eta pixkanaka Euskal Herrira egokitzen joateko". ●

# EHZ, munduko festibalik onena

Musikari bat, bestazale bat eta kazetari bat joan gara elkarrekin EHZko hiru egunak pasatzera. COVID-19 osteko lehen festibala da guztiontzat, eta espektatibak badu horretatik. Hainbat urtetako gorabeheren ondorioz, azken orduan abiadura bizian antolatu dute jaialdia. Azken konfirmazioak astebete arinago heldu dira. Jaialdiko giroa zein izan den ikusita, merezi izan du hartutako lanak.

XALBA RAMIREZ DANI BLANCO

Lehen geltokia: Hendaiako Pharmacie de la Gare. Bertako langileek kasik ez digute zer behar genuen galdetu behar izan ere, eta antigenoen testa egin dugu, doan. Hamabost minutu itxaron eta martxan gara Irisarrirat, Baxenafarrora. Ehunka auto eta furgoneta herri sarrerako zelaian aparkatzen ikustean, duela bi urteko festibaleko sentsazioak oroitzen hasi gara.

Lehen filtroan kazetaria laguntzaileen txokora joan da, akreditazioak lortzera. QR kodea erakutsi behar dugu denok eta motel doa. Antolakuntzako batek hala dio: "Nahiago dugu orain zorrotz jarri eta beraz ondoren goxoago arituko gara". Pazientzia pixka bat eta denak gara barruan oihaletxeak muntatzen.

Irribarrea. Hori da festibalera sartzerakoan topatu dugun lehena. Ez da jendea pozik dagoelako, urte bete daramalako lehengo bizitzara bueltatzeko desiratzen. Pozaz gain, irribarreak ikusten ari gara maskararik ez delako ageri. Ulertu behar da Baxenafarroan ez dela derrigorrezkoa izan orain arte, eta orain lege berriak indarrean direla, are gutxiago. Hegoaldetik etorri garenontzat opari bat izan da, eta izen berria eman diogu herriari: Irrisarri.

Gure taldea hasieratik banatu da, musikariak ez duelako Lukiek galdu nahi –Nogen donostiarren ordez etorri dira azken orduan, rockzaleen pozerako–. Plazan berriz, Ekidakoek *Manifestua* ikuskizuna aurkeztu dute. Artearen funtzio politikoez hausnartu dute, poemak eta neosoul estiloko musikarekin. "Ausarta den kantu hori, beti da kantu berria".

Pentzeko giroa sinestezina egin zaigu. Zenbat dantza eta poz zegoen gordeta, banatzeko gogoz. Txaranga bat dabil eta *Furra furra* edo *Iñaki zer urrun dagoen Kamerun* kantuek inoiz baino dantza gehiago eragin dute. Iruñerriko Herdoil taldearen punk-oi azkarrak eman dio gaualdiari hasiera. Ostean Rö azpeitiarrek biziki ondo aprobetxatu dute oholtza handia rock instrumental emanaldi bikaina eskaintzeko. Gaurko gaua ez da dantza sentsualetarako, jarraian Torheiten txanda izan baita. Suhuskunekoak mito bat dira Baxenafarroko metal harrobian. Azken bi talde hauei ordu hain onak eskaintzea arriskatua den arren, txalotzekoa da, jaialdietan ez baita usu gertatzen. Musikarientzat EHZ ibilbideari errekonozimendua da eta.

Kazetaria eta musikaria lotara joan dira, baina bestazaleak, nola ez, luzatu egin du gaua; Mairü-ren proposamen interesgarriarekin lehenik eta Proleter DJ-en elektro-swingarekin ondoren.

TERESA HERNANDEZ

## LARUNBAT IA BOROBILA

Larunbat goizean nabaritu da jendearen etorrera, nor zetorren deskantsuarekin eta nor erdi arrastaka. Kanpalekuan *rave* txiki mordoa egon da, loaren kalterako. Afrikar dantza ikastaro bizia izan da pentzean eta bertso poteoa plazan, ajearen arabera banatuz bertakoak. Txiki donostiarra arduratu da umore ukitua jartzeaz, plaza zaila zuen arren. Iruñetik datorren *Komunetik* ikuskizuna da jarraian, antzerkia eta musika inprobisazioa uztartuz. Hasi denerako joan behar izan dugu, gure koadrilako musikariaren txanda baita pentzean. Tamalez Amaia Elizaran dantzariaren ikuskizuna ere galdu egin dugu.

Materiala deskargatu eta laguntzaileen txokoan izan gara Julen bolondresarekin. Bera ari da arduratzen guztientzat leku lasai bat sortzeaz. Janaria, edaria eta tertulia pixka bat, besterik ez da behar. Andoni Oilokiegi ere bertatik da. Arratsaldea girotzeaz arduratuko da, eta akaso pare bat orduz arituko da. Baina mutil honek ez du mugarik, eta atseden tokian bere gitarrarekin kantuak eman eta eman ari da.

> Pentzeko giroa sinestezina egin zaigu. Zenbat dantza eta poz zegoen gordeta, banatzeko gogoz

Festibaletan antolakuntzako erritmoa oso bizia da. Muntatu eta soinu proba egin 30 minututan. Normalean ordubete, ordu eta erdi izaten denean. Urduritasuna ere handiagoa da, kanpoan bolumena altuegia da, kolpe eta nota bakoitza oso ondo neurtu behar da. Leku txikietara ohituta gaudenok beste arnas batekin jotzen dugu. Kontzertua amaitzean Joana antolatzailearekin izan gara eta gogotik eskertu digu bertan izatea. Guk berari eskertu diogu gonbita egin izana eta buklean sartu gara elkarri eskerrak ematen. Datorren urtean beste talde batekin itzuliko garela esan diogu eta berak baietz, ea egia den.

Kontzertua eman ostean nekatuta da musikaria, baina bestazaleak pentzera joateko dei egin dio. Baita asmatu ere. Azken orduko konfirmazioa zen Jewel Usain rap kantari frantsesak egurra banatu du. Erritmo biziarekin batera euri zaparrada itzela hasi da, baina horrek ez du publikoa gogogabetu. Alderantziz, topera hasi da jendea saltoka eta

dantzan, eta Usain sinistu ezinik giroarekin: "*Ces Basques sont fues!*".

Zea Maysen txanda izan da ekitaldiaren ondoren. Antolakuntza poz-pozik agertu da harrerarekin eta zailtasun guztien gainetik festibala aurrera ateratzeko determinazioarekin. Azken lau urteetan bi aldiz utzi behar izan dute bertan behera festibala: behin ekaitzagatik, beste behin koronabirusagatik. Eta hala ere zutik da, beste hogeita bost urtez jarraitzeko prest.

Anestesiak piztu du ilusioa zaleen artean. Eztarriko minbizia gainditu zuen iaz Mikel Kazalisek eta bizitza ospatzeko biraren barruan kokatu dute kontzertu hau. Zaratan oinarritzen den talde baten goxotasuna izan zen kontzertuaren muina, zaleek dioten begirunearena. Hori bai, testosterona gaindosia pixka bat jaitsi beharra zegoen eta hor etorri dira Madrildik Tremenda Jauriakoak.

> Hemen ez Delta, ez Indiakoa; hemen kutsatu daitekeen bakarra E.H.Zepa da

Cumbia eta reggaetoi erritmoak letra aldarrikatzaile eta feministekin uztartu dituzte. Batzuetan sobera errepikakor izan arren, giroa paregabea izan da.

Larunbat gaua ixteko, Chill Mafiaren ordua heldu da. Zalantzarik gabe espektatiba handienak pizten zituen kontzertua. Harridura eragin du hasieratik: mahaian pintxatzen dago Sara Goxua Dj-a, eta hiru kantariez gain, bete zazpi lagun daude sofa batean eserita, ordenagailu aurrean, edaten eta erretzen, lokalean egongo balira bezala. Kontzertuko giroa arraro xamarra izan da, 2.000 lagun inguru –zifra ofizialen arabera–, denak adi-adi so. Asko kantuan, baina beste asko isilik, iritzi bat sortzeko helburuarekin aztertzen arituko balira bezala.

Tamalez, giroa aldrebestu da eraso sexista bat jazo delako. Brigada Ubelekoekin hitz eginda, protokoloan hiru eraso maila bereizten dituztela adierazi dute, eta jazotakoa bigarren mailakoa izanik, kontzertua bost minutuz eten da. Itzuleran, Chill Mafiakoek egindako komentarioengatik –edo ikusten zutena gustatzen ez zitzaielako– eserialdi modukoa egin dute hainbat emakumek eta objektuak jaurti eszenatokira. Giro horretan bigarren eraso baten berri eman du Brigada Ubelak eta taulara igo dira, protokoloaren berri ematera; egoeraren larritasunagatik kontzertua etetea erabaki da, azken bi kantuak falta zirenean.

TERESA HERNANDEZ

## AZKEN KARTUTXOAK ERRE

Igande goizean Pirritx, Porrotx eta Marimototsek girotu dute pentzea. Pailazo horiek duten egurra nahiko lukete hainbat hardcore taldek! Egoten den giro ederragatik, igandera ondo heltzea da helburua. Gure bestazalea saiatu da dutxa batekin esnatzen, ondo gosaltzen, baina ezinezkoa da, ajeak gainditu du. Musikariak konbentzitu egin du Rukularen kontzertura joateko. Bestondorik ez Rukularekin. Gaupaseroek eta gurasoek bat egin dute erritmo frenetikoarekin, lastozko lurretan dantzan.

Kanpalekua husten hasi da eta jende gehiena zikiro janera apuntatu da. Urtero egiten den bazkari herrikoia aitzakia paregabea da inguruko herrietakoak hurbiltzeko, aspaldiko lagunak topatzeko, beti kanturako tartearekin noski.

Zangotzako DJ Reimyrekin topatu gara aparkalekuan. Bizikleta Sound Systema ekarri du. Lau lagun, lau bizikleta, lau soinu sistema txiki eta denak bluetootharekin konektatuta. Reimyren erritmoan dantzatzen ez duenik ez dut ezagutu oraindik.

Ruper Ordorika mitikoak arratsalde paregabea utzi du pentzean. A zer sasoia duen oñatiarrak. A zer trebezia kantu zaharrak patxada horrekin jotzeko. Sarrionandiari eskaini dio kontzertua, aro berri bat hasten delako bere itzulerarekin.

Rockero zaharrekin jarraituz, Potato gasteiztarrak izan dira erregeak. Reggae eta ska doinuekin gelditu ezinik ibili gara dantza eta dantza. Askok uste zuten ez zituztela ezagutzen. Baina ezinezkoa da 30 urte dituzten kantu horiek sekula entzun ez izan. Hitz egiten ez da oso abila, baina Paco Pecadok alaitzen ondo daki.

Guretzat azken kontzertua Diabolo Kiwirena izan da –ezin genuen beraiek ikusi gabe alde egin–. Garazi-

tar gazte hauen funkya beste maila batean dago. Allandek mikrofonotik "eskerrik asko Iparralde!" oihukatu duenean par egin dute Iparraldekoek. Hegoaldekoak Lapurdira, Baxenafarrora edo Xiberura joaten garen bakoitzean botatzen dugun esaldia delako edo.

Bestazaleak jarraitzeko asmoa zuen arren, kazetariak kronika idatzi behar zuela eta, joan egin gara Reykjavik606 eta Xiberoots ikusi gabe. Lastima!

## 25 URTE... ETA GEHIAGO

COVID-19 ostean zer gertatuko ote, hori zen festibalaren inkognita handiena. PCR eta antigeno testa egin dugu denok, eta horrek ahalbidetu du giroa benetan goxo egitea, agindu bezala. 2019ko festibaletik ez genuen desberdintasun handiegirik antzeman. Hemen ez Delta, ez india; hemen kutsatu daitekeen bakarra E.H.Zepa da. Espero dezagun behintzat.

Bolondresen lan izugarriari esker atera da aurrera beste behin jaialdia, eta jada 25 urte dira. Brigada Berdeko lagunei goresmenik handiena, gorotzetik ongarria ateratzen saiatzeko egindako lan eskergagatik. Brigada Ubelari ere urtez urte egiten duelako urrats bat gehiago testuinguru zailetan aurrera eginez.

Antolakuntzakoak "biziki kontent" agertu dira, eta ez da gutxiagorako. Euskal Herriko lehen festibala izan da 2019tik. BBK Live edo Heineken ez-dakit-zer festibala izango balitz, portada guztiak izango lituzke. Baina txikiagoa da bere oihartzuna, bere pausuak urrunera doazelako.

Hainbeste marka eta super talde batzen dituztenen ondoan, EHZ munduko festibalik hoberena dela aldarrikatu zuen Mikel Anestesiak. Ni ez naiz izango hori ukatuko duena. Kazetari, musikari eta bestazale gisa bizitzea, ederra delako. ●

LIBURUA

# Ameriketara joan nintzen



EREIN

**ETXETIK AMERIKETARA**
**ENARA GARMENDIA**
EREIN, 2021

**XABIER ETXANIZ ERLE**

Oker ez banago aurten atera dituen bi liburuak dira Enara Garmendiaren lehen lanak euskal letretan. Bi obra plazaratu ditu olaberriatarrak: *Etxetik Ameriketara* eta *Hiru gara, baina niri bost!* Biak Erein etxearen bidez plazaratuak eta biak familia bereko protagonistekin. Hori bai, lehena gazteentzat da eta bigarrena haurrei zuzenduta dago.

*Etxetik Ameriketara* izenburuak adierazten duen bezala, Amerikako Estatu Batuetara urtebete igarotzera doan familia baten istorioa dugu, zehazkiago esanda familia horretako alaba nagusiarena, Maia. Irakurleak bidaiaren gorabeherak jakin ondoren Maiaren "hango" bizitzaren berri ezagutuko du, ikasketak, eskolarako bidaia autobusean, nola hartzen duten han... eta baita ere nola jasan behar duen bullyinga bertako ikasle batzuengandik.

Garmendiak istorioa hainbat ikuspuntutatik kontatzen digu; zenbait narratzaile daude eta gertakariak bakoitzaren ikusmoldetik azalduko zaizkio irakurleari. Maia eta Ayla bere laguna dira narratzaile nagusiak. Bi neska horiek ditugu narratzaile garrantzitsuenak, baina badira zeharka, noizbehinka, agertzen diren beste ahots batzuk: Gorka anaiarena, Ms. Rose irakaslearena, Nathan mutilarena eta Hannah klaseko neskarena. Istorioaren argumentua guztion artean joango dira eraikitzen. Sare hori, batez ere Maiaren eta Aylaren kontakizunari esker ezagutuko dugu, baina gainerakoen ekarpenak ere aberasgarriak dira istorioa osorik eta ikuspegi ezberdinetatik ezagutzeko.

Irakurlea harrapatuta sentituko da Maiari gertatzen zaizkionekin; berehala ikusiko du nola baztertzen duten berak inolako errurik izan gabe eta nola inguruko lagun guztiek bakartzen duten. Baina horrekin batera Aylaren baitan dagoen eztabaidaren lekuko izango gara; zergatik defendatu kurtso amaieran joango den pertsona hori, horrek bera bakarrik geratzea ekar badezake? Zergatik egin aurre "lagunei", kuadrillari, eta kanpoko neska baten alde agertu?

Liburua, kapitulu laburretan, eta narratzaile batetik bestera jauziak emanez, azkar irakurtzen da eta oso aproposa izan daiteke mundu globalizatu honetan hainbat eta hainbat konturi buruz hitz egiteko: hezkuntzaz, adiskidetasunaz, bullyingaz, amodioaz... Baina, batez ere, une atsegina igarotzeko liburua da Enara Garmendiaren lehen nobela hau. ●



MUSIKA

# Punk-rockaren esentzia dosi txikitan

## QUEREMOS LA VERDAD & QUARANTINE BLUES

**NUEVO CATECISMO CATÓLICO**

FOLC RECORDS

**IKER BARANDIARAN**

Donostiako auzoetan sortutako Nuevo Catecismo Católico taldeak 30 urte beteko ditu 2022an. RRV edo Euskal Rock Erradikalaren bigarren olatuaren erdian sortu zen taldea, baina garaian nagusi zen horren guztiaren korrontez kontra, punkari, rockari, beste estilo batzuk berreskuratzeari eta txukun jotzeari ekin zioten. Rockak jatorrian izan duen dibertimendu kutsuari ere egin zieten gorazarre, uste sendoz. Are gehiago, punk-rockaren esentziara jo nahi izan zuten eta Euskal Herriko herrietara ekarri; baita lortu ere.

Kanta borobilak idatzi zituzten, zehaztasun txikiena ere zaindutako zuzenekoak egin izan dituzte beti. Inongo managerrik edo aita pontekorik gabe bide zabala egin dute, beti beraien tamainan, profesionalizatu gabe, eta publikoari guztia emanez.

Diskografia dotorea du taldeak, asko dira punk-rockaren inguruan landutako eresiak: 77ko kutsu handia dutenak, power-pop eroagoak, ilunagoak, basatiagoak... Baina izan dira etenaldi luzeak egin dituzten urteak eta azken urteotan berriro ere zuzenekoak ematen badabiltza ere, ez dute hamarkada eta erdian lan luzerik grabatu, ezta kaleratu ere. 2006koa da azken lan luzea: *1.530 segundos de...* Gerora *Antología 1992-2017* bilduma eta hainbat EP kaleratu dituzte.

Orain, urteurren borobilaren bezperatan, hiru EP aterako dituzte jarraian, aspaldi grabatutako hainbat kanta eta bertsio Haritz Harreguyren laguntzaz txukunduta. Jadanik kalean daude *Queremos la verdad* eta *Quarantine blues* lanak. Aurki hirugarren EP bat argitaratuko dute. *Queremos la verdad*-ek dauka donostiarrek betidanik zaindu duten 77ko legatu preziatua. *Killin' the city* da Herbehereetako antzinako Flying Spiderz-en punk-rock eresia. Aldiz, *Quarantine blues*-ek NCCren ezaugarri guztiak ditu: melodia barra-barra, Arturoren gitarra riff errepikaezinak, rock-and-roll esentzia eta lelo itsaskorrak. Bullet Proof Lovers-eko Kurt Baker-ek laguntzen du Gonzalo ahotsetan. Borobila da! *Rock a la radio* da Frantziako Bijou taldearen abestiaren bertsioa, benetako pub-rock eta rock-and-rolla. Ea labetik ateratzear dagoen hirugarren EParekin zer sorpresa eskaintzen diguten! ●

# Ahotsaren indarraz, lurra dardarka

**PETTI**

**NOIZ:** ekainak 10
**NON:** Iruñeko O-ko Andre Maria Plaza

AMETS ARANGUREN ARRIETA

*Kantu eta Hitza* zikloa antolatzen du urtero Iruñeko Udalak. Aurten, kontzertuak Alde Zaharreko O plaza eder eta (gaurkoan) eguzkitsuan dira. Nafarroa Garaiak egun duen ahots ahaltsuenetako baten txanda izan da honakoan: Petti. Kontzertuaren eremura hurbildu ahala ikusi ditugu beratarrarekin batera oholtza gainean izanen zirenak eta... ez ziren edonor. Egia da beratarrek ez dutela zail etxeko uztatik tiraka talde dotorea osatzea eta hala egin du berak ere: Joseba Irazoki gitarran eta Telletxea anaiak baxu eta baterian. Herritik kanpoko pare bat ere izan ditu lagun: Juantxo Zeberio eta Alejandro Saúl Martínez, teklatuan eta biolontxeloan, hurrenez hurren.

Berriki urtebete egin duen *Manipulazio estrategiak* diskoa aurkeztera dator seikotea. Pettiren musika, Noam Chomskyren pentsamendua eta Harkaitz Canoren hitzak elkarrekin. Erritmo motelak eta gitarra elektrikoaren ostinatoak izan dira agintari kanta askotan eta melodiak izan du mugimendua emateko funtzioa. Horrek harrapatu nau, erraza naiz melodiekin konkistatzen. Ezin da aipatu gabe geratu, noski, Pettiren ahotsaren presentzia bezalako gutxi dagoela musikaren gure panoraman. Ahots grabe eta indartsuak melodia sotilei ematen dien izaera berezia da, irmoa baina goxoa aldi berean, hauskaitza balitz bezala. Erruari kantatu dio, damuei eta baita helduei, sehaska kanta pare bat. Disko berria bai, baina klasikoak tartekatuz, noski. Eta horietan presente Pello Lizarralderen eta Joxean Artzeren hitzak, besteak beste. Kontzertua uste baino gehiago gozatzen ari banintzen ere, aitortu behar dut gauza batek egin didala atzera: ez nau inoiz konbentzitu kanta batean errezitatzeak, ez galdetu zergatik, baina artifizial ikusten dut, ez dut sinesten.

"Izenik ez daukan kezka ez da benetakoa" kantatu digu bere gitarra hutsez lagundurik, boza bere gordintasunean luzitzeko aukera probestuz eta hitzak zuzenean bere barrenetik gure barrenera bidaliz. Gitarran duen abilezia eta bere kantagintzan bluesak duen presentzia ere agerian utzi ditu. Eta Iruñean egonda, ez du Iruñeko banda mitikoa den Balerdi Balerdiko abeslariari keinutxo bat egiteko aukera galdu, Toño Murok grabatu baitu disko berriko kanta batean gitarra. Dena geratzen da etxean.

Urte luzez izan dut zokoratua Petti (22 urterekin "urte luzez" horrek har dezakeen dimentsioa kontuan izanda), txoko batean baztertua, ez omen zitzaidan gustatzen. Beti esaten dut munduko sentsazio politenetako bat dela gustatzen zaizun musika berria birdeskubritzea, baina bierdeskubritzea ere ez dago batere gaizki. "Gomenda iezadazu musika euskaraz" esango didan hurrengoarendako zerrendan joanen da, bai horixe. ●

# Gurutzegrama




**EZKER-ESKUIN:**

**1.** Udak irauten duen denboraldi. | Erabateko, bete-bete. **2.** Iruzur, engainu. | Martxo (Bizkaian). **3.** Garbiketarako ontzia. **4.** **Argazkiko antzokia**. **5.** Abiatzea. | Hitz eginez. **6.** Arrazoiaren arabera ezin uka daitekeena. | Janztera behartu. **7.** Kotteko herritar. | Zaldikume. **8.** Ahardia arreske. | Adimenaren gaixotasuna.

**GOITIK BEHERA:**

**1.** Lagatze. | Eguzki. **2.** Du, haiei. | Agortu aditzaren infinitiboa. **3.** Biolinaren antzeko musika tresna. **4.** Tirria sentitu. **5.** Zoro, ergel. | Einstenioaren ikurra. **6.** 1002 erromatar zenbakiz. | Ospakizun, festa. **7.** Panamako herritar. **8.** Zerbait egitera bultzatu. **9.** Kontsonante bikoitza. | Dirudienez. **10.** Bertso lerroaren osagaia den eta hura neurtzeko erabiltzen den silaba multzo. | Gaizto, oker. **11.** Pisua, karga. **12.** Aranondoaren fruitu. **13.** Opil. **14.** Ipurtzulo. **15.** Arrazoia, zergatia.

# Sudokua

ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 9 | 4 | 7 | | | | 3 | |
| | | | 8 | | 4 | 7 | | |
| 5 | 7 | 2 | 3 | 1 | | | | |
| | | 8 | 4 | 3 | 2 | | 1 | 7 |
| | 1 | | 9 | | 5 | | 8 | |
| 2 | 6 | | 1 | 7 | 8 | 5 | | |
| | | | | 8 | 3 | 2 | 5 | 1 |
| | | 5 | 2 | | 1 | | | |
| | 2 | | | | 7 | 9 | 6 | |

ZAILA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 6 | 9 | | 5 | | | | |
| 2 | | | 6 | 7 | | | 1 | |
| | | | | | 4 | | | 7 |
| 6 | | 2 | | | | | 7 | |
| | | 7 | 4 | | 5 | 8 | | |
| | 8 | | | | | 6 | | 5 |
| 9 | | | 5 | | | | | |
| | 2 | | | 9 | 3 | | | 1 |
| | | | | 2 | | 3 | 5 | |

# Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.




# Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

| | |
|---|---|
| Zerealen zurtoin | **LASTO** |
| Perdigoi handia | |
| Hots, zarata | |
| Garai egoki | |
| Hizketa, berriketa | |
| Burusoila, karsoila | |
| Lokatza, basa | |
| Oihanaren errege | |
| Fruitu mota | |
| Logale handi | |
| Ikastetxe | |
| Egundoko, sekulako | |
| Etzan | **ETZIN** |

**EBAZPENAK**

**ATSOTITZA**

BILDOTS AHO GOZOAK, AMA BIREN ESNEA EDAN.

**ANAGRAMAK**

LASTO
POSTA
ASOTS
SASOI
SOLAS
SOILA
LOHIA
LEHOI
MELOI
LOERI
LIZEO
ITZEL
ETZIN

**ERRAZA**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 9 | 4 | 7 | 2 | 6 | 1 | 3 | 5 |
| 5 | 1 | 3 | 6 | 8 | 4 | 7 | 2 | 9 |
| 9 | 2 | 6 | 3 | 1 | 9 | 8 | 4 | 7 |
| 4 | 7 | 8 | 2 | 5 | 3 | 9 | 6 | 1 |
| 1 | 3 | 5 | 4 | 7 | 8 | 6 | 9 | 2 |
| 2 | 6 | 1 | 9 | 3 | 5 | 4 | 7 | 8 |
| 3 | 4 | 9 | 8 | 6 | 7 | 2 | 1 | 5 |
| 7 | 8 | 2 | 5 | 4 | 1 | 3 | 9 | 6 |
| 6 | 5 | 7 | 1 | 9 | 2 | 5 | 8 | 3 |

**ZAILA**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 6 | 9 | 3 | 5 | 1 | 4 | 2 | 8 |
| 2 | 4 | 8 | 6 | 7 | 9 | 5 | 1 | 3 |
| 3 | 1 | 5 | 2 | 8 | 4 | 9 | 6 | 7 |
| 6 | 5 | 2 | 9 | 3 | 8 | 1 | 7 | 4 |
| 1 | 9 | 7 | 4 | 6 | 5 | 8 | 3 | 2 |
| 4 | 8 | 3 | 7 | 1 | 2 | 6 | 9 | 5 |
| 9 | 3 | 1 | 5 | 4 | 7 | 2 | 8 | 6 |
| 5 | 2 | 6 | 8 | 9 | 3 | 7 | 4 | 1 |
| 8 | 7 | 4 | 1 | 2 | 6 | 3 | 5 | 9 |

**ESKER-ESKUIN:** 1. UDATE, PETO, 2. ZIRI, MARTI, 3. TERREINA, 4. ARRIAGA, 5. ABIO, MINTZATUZ, 6. EGIA, JANTZARAZI, 7. KOTTEAR, ZAMALKO, 8. IRAUSI, PARANOIA.

**GOITIK BEHERA:** 1. UZTE, EKI, 2. DIE, AGOR, 3. ARRABITA, 4. TIRRIATU, 5. ERO, ES, 6. MII, JAI, 7. PANAMAR, 8. ERAGIN, 9. TT, ANTZA, 10. OIN, TZAR, 11. ZAMA, 12. ARAN, 13. TALO, 14. UZKI, 15. ZIOA.

# *Uxue Razquin Olazaran*

EREIN ARGITALETXEKO EDITOREA

## “Momentu batzuetan gogoa dut esateko: aizu, lasai, ni laguntzeko nago”

Mundu berri bat deskubritzen ari denaren modura mintzo da Uxue Razquin (Iruñea, 1992), Erein argitaletxeko editore berria. “Beti liburu bat eskuan” du idatzia Twitterreko bere soslaian, eta hala omen da, txikitatik. Baina inoren eskuetara heldu aurretik liburuak egiten duen bide osoa ezagutzen ari da orain. Azken batean, elkarrizketa hau egiterako, hilabete baino ez darama editore lanetan.

**ANDER PEREZ** **JOSU SANTESTEBAN**

**Nola doa egokitzapena?**
Pozik nago, baina urduri ere bai, lan zamagatik. Ereineko lantaldeak asko lagundu nau, ez nago bakarrik; editorea naiz, baina baditut ondoan beste sailetako langileak. Nik ez dut oso ongi ezagutzen liburuaren sektore osoa. Produktua ezagutzen dut, baina liburu-dendara iritsi arte egiten den prozesu guztia ez nuen ezagutzen. Nire lana da eskuizkribuak iristerakoan irakurri eta balio duten edo ez erabakitzea eta idazleekin harremana izatea, baina jakin behar dut ere beste pausuak zeintzuk diren, eta asko ikasten ari naiz.

**Espero zenuena topatu duzu?**
Oso erromantizatua nuen ofizioa. Txikitan amari esaten nion editore izan nahi nuela, ongi jakin gabe zer zen. Imajinatzen nuen sofa bat, liburuak iritsi eta asko irakurri. Baina eskuizkribu asko iristen dira oso denbora murritzean, eta hori kudeatzea oso zaila da. Bat irakurtzen hasten naizenerako beste hiru dauzkat postan. Nik ongi irakurri nahi dut, liburu batek zertan egiten duen huts ikusi, edo nola laguntzen ahal diodan idazle bati. Eta horrek eskatzen du mundu osoa ezagutzea: ematen du logela batean zaudela sartuta, eta inorekin ez duzula hitz egiten, baina bai zera, badakizu noiz doan inprentara, nola egin duten azala... Ate asko izaten dira irekita, eta hori kudeatzen ikasi behar dut.

**Bada tokirik iristen zaizuen guztiarentzat?**
Ez. Ni kanpoan bizi izan naiz, eta euskal literaturatik pixka bat deskonektatua ibili izan naiz, nola dagoen, zer kontsumitzen den. Ikusten ari naiz liburu asko argitaratzen direla, eta irakurleok ez dugula denborarik erritmo horri jarraitzeko. Asko dago, eta dena ezin dugu sartu. Eta ezetza ematea oso zaila da.

**Literaturazale batentzat, lanik onena da editorearena?**
Orain baietz esango dizut, baina urtebete barru... [barrez]. Uste dut asko sufritzen dela. Ez idazleekin, e! Hori oso polita da, egiten dituzu harremanak, jendea ezagutu... Baina nik, adibidez, sufritzen dut ezetz esatearekin;

### HANDITAN EDITORE IZAN NAHI DUT

“Txikitatik amak liburuak oparitu dizkit, eta banekien liburuekin zerbait egin nahi nuela. Amari esaten nion editore izan nahi nuela. Irakurri nahi nuen, autoreak deskubritu, haiekin bide bat egin. Baina horretarako ez da ikasten, ez dago karrera bat, eta zaila da mundu horretara sartzea. Ez dago Infojobsen eskaintzarik: 'Editorea behar dugu'. Bartzelonan liburu saltzaile ibili nintzen FNACen, eta liburuekin kontaktuan nengoen. Banuen hori buruan, baina amets bat zen. *Berria*rako eta *Deia*rako idazten nuen, eta emakume zientzialarien erreportajeak ere, EHUko Kultura Zientifikoko Katedrarentzat. Iruñera itzuli nintzenean Ereinetik deitu ninduten, eta esan zidaten ikusia zutela nire izena sare sozialetan. Lana eskaini zidaten, eta baietz esan nuen, bi aldiz pentsatu gabe".

"Eskuizkribu asko iristen dira oso denbora murritzean, eta hori kudeatzea oso zaila da. Bat irakurtzen hasten naizenerako beste hiru dauzkat postan".

azkenean, idazle batek eman dizu beretzat oso intimoa den zerbait, eta zuk irakurtzen duzu, eta zure irizpideen arabera, esaten duzu: "Bada ez". Kostatzen zait hori, baina are garratzagoa da horren erantzuna jasotzea. Batzuetan ez dute ulertzen, eta badirudi editorea dela idazlearen antagonista. Eta kontrakoa da, editoreak lagundu behar du idazlea bere ibilbidean, obra ahalik eta hoberena izateko. Momentu batzuetan gogoa dut hori erantzuteko: aizu, lasai, ni laguntzeko nago.

**Editorearentzat idazlea zer da?**
Denetarik da. Lankide bat da, berarekin lanean zaudelako, produktu bat egiten. Idazketa oso gauza indibiduala da, baina editoreak lagundu behar du, batzuetan *coach* moduko bat ere bada. Demagun idazlea trabatuta dagoela, ez dakiela paragrafo bat nola egin, edo liburua nola bukatu. Editoreari dagokio hor egotea, laguntzen.

**Baina prest egon behar du maite dituen idazleekin haserretzeko?**
Oraindik ez dit denborarik eman [barrez], baina bai. Bakoitzak izango ditu bere arrazoiak, zeren eta, azkenean, nahi duzuna da liburu hori ongi egotea, gero gustatu ala ez. Eta batzuetan, horra iristeko, haserrealdiak izaten dira. Baina edozein harremanetan gertatzen da hori.

**Editoreak idazle izan behar du?**
Ez du zertan, baina esango nuke editore gehienek idazten dutela. Nik beti idatzi dut, txikitatik, baina ez dut ezer publikatu, tiraderan daude paperak. Uste dut zerbait idatzi behar duzula, hobeto ezagutzen dituzulako idazle baten prozesuak. Ez da ezinbestekoa, baina lagungarri da. Beharrezkoa irakurtzea da, pista asko ematen dizkizu horrek.

**Aldatu zaizu irakurtzeko modua?**
Bai eta ez. Aurretik ere oso irakurketa analitikoak egiten nituen. Batzuetan plazerezko irakurketak direnetan ere bilatzen ditut erratak eta abar, obsesio pixka bat badut. Baina disfrutatu izan dut istorio baten irakurketa hutsaz, bestea ahaztuta. Orain, lehen irakurketa batean oso analitikoa izaten naiz, eta akatsak edo hutsuneak bilatzen ditut. Baina gustatzen zait bigarren irakurketa batean, gauza horiek azpimarratuta ditudala, irakurlea banintz bezala irakurtzea.

**Sarri ematen duzu sare sozialetan literaturaren berri. Ze toki du literaturak eremu horretan?**
Uste dut lekua baduela. Nik natural bizi dut, zerbait gustatzen zait eta igotzen dut sare sozialetara. Paisaiekin egiten dugun bezala: hemen gaude, mendi honetara igo gara, hor duzu argazkia. Modu horretan ikusten dut; liburu hau irakurtzen ari naiz, gustatzen zait eta gomendatzen dizuet.

**Asko zarete azkenaldian euskal editore gazteak.**
Zikloak dira, eta bazen beharra. Ereinen gertatu da, Igelan, Txalapartan... Aldaketak izan dira eta gazteok hartu dugu lekukoa. Beharrezkoa zen, baina oso modu naturalean etorri da, argitaletxeek ikusi dute mundua aldatzen ari dela alor guztietan, eta jende gaztea behar dela literaturan. Oso jarrera irekia eta naturala ikusi dut.

**Eta asko zarete nafarrak. Kasualitatea da?**
Sentsazioa dut Nafarroa beti izan dela mugimendu baten erdigune, batez ere kulturan, eta ez bakarrik literaturan. Beti ikusi dut gazteria gauzak egiteko prest. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

# Oyarzabal eta Simonen balentrien ostean, Naziometroari esandakoa aldatzeko eskatu dute ehunka lagunek

Mikel Oyarzabal zeilaira irten aurretikm Laboaren Txoriak Txori abesten.

"Bai, bai, nik ere uste nuen euskal selekzioak ofiziala izan beharko lukeela, baina ikusten duzu Espainiarekin jokatzen ari diren Mikel, Unai edo Cesar zein mutil jatorrak diren eta, ostia, ba irabazten dutenean emozionatzen zara", kontatu digu Gorane Ezpain tolosarrak, Realaren elastikoa soinean. Horregatik erabaki du Naziometroaren bigarren inkestan bere erantzuna aldatzea, beste milaka lagunek egin duten moduan. Hala, gaur gaurkoz euskal herritarren %97 Espainiako selekzioaren alde dago, "gutarrak daudelako tartean". "12 urtez azpikoen edo emakumezkoen euskal selekzioak egotea bai, baina gizonezkoena... ba zer nahi duzue esatea, agian ez da txarra Espainiak irabaztea, gure jokalariengatik. Nazionalismo kontuak albo batera utzi behar dira, naturaltasunez". Honen aurrean, Jaurlaritzak prest du euskal selekzioa nazioartean hauspotzeko kanpaina iraultzaile berria: Naziometroari eskatzea selekzioari buruzko galdera kentzeko. ●

# Jainkoari eskatu eta ahalguztidunak emango dizu

## SAREAN ARRANTZATUA

### On egin diezazula itzulpenak

### Carpe diem

Irudia: @marisabarrena1 | Twitter

### Dena da ETA

2. argitaraldia

# XAPOKETAN

## KARTA-JOKOA

## Ezagutu Euskal Herriko animaliak!

**Euskal Herriko lurralde banatako zazpi ekosistema eta 42 animalia ezagutuko ditugu. 5 jolas ezberdin egin daitezke: familia jolasa, puzzlea, ezkutaketa eta memoria eta azkartasun jokoak.**

**15 €**

**Bidalketa gastuak: 4 €**

**EDUKIAK:**
**Iñaki Sanz Azkue** biologoa

**IKUSPEGI PEDAGOGIKOA:**
**Lore Erriondo** EHUko irakaslea

**MARRAZKIAK:**
**Eñaut Aiartzaguena**

Eskaerak: **azoka.argia.eus** / **943 37 15 45**

ARGIA

**Hautu egoki batek guztia aldatu dezake.**

# Ekologikoa eta bertakoa

> ekolurra.eus <

FEADER

eko lurra

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
Consejo de Agricultura y Alimentación Ecológica de Euskadi

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO